



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

2025eko UDAL AURREKONTUEN AZTERKETA
GENERO IKUSPEGITIK

2024ko urria

AURKIBIDEA

1. LEGE ESPARRUA	3
2. AURREKONTUAK GENERO IKUSPEGIAREKIN	5
3. DONOSTIAKO UDALAREN IBILBIDEA GENERO IKUSPEGIA UDAL AURREKONTUETAN TXERTATZEN	6
4. AURREKONTU OROKORRAK	9
5. GENEROAREN IKUSPEGITIK GARRANTZI HANDIENA DUTEN PROGRAMEN JARRAIPENA ETA GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA	17
5.1. OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	20
5.1.1. UDALTZAINGOA	20
5.1.2. MUGIKORTASUN BERTIKALA	21
5.1.3. HIRI MUGIKORTASUNA	22
5.1.4. HIRIGINTZA	24
5.1.5. DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA	25
5.1.6. BIDE PUBLIKOAK	26
5.1.7. HERRI ARGITERIA	28
5.1.8. PARKE ETA LORATEGIAK	28
5.1.9. HONDARTZAK	29
5.2. BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUERAK	31
5.2.1. BERDINTASUNA	31
5.2.2. LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA	35
5.2.3. DONOSTIA LAGUNKOIA	36
5.2.4. GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK	37
5.2.5. GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	38
5.2.6. APARTAMENTU TUTELATUAK	39
5.2.7. GIZARTE ABEGI ETXEA	40
5.2.8. GIZARTERATZEA	40
5.2.9. ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA	41
5.2.10. ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA	43
5.2.11. ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	44
5.2.12. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA	44
5.2.13. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	45
5.2.14. ZAHAR ETXEAK	46

5.3. LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	48
5.3.1. OSASUN SUSTAPENA.....	48
5.3.2. OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA.....	49
5.3.3. HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA.....	50
5.3.4. UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA) / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK).....	51
5.3.5. HEZIKETARAKO PROGRAMAK	52
5.3.6. GIZA ESKUBIDEAK.....	54
5.3.7. KULTUR ANIZTASUNA	55
5.3.8. DONOSTIA KULTURA	57
5.3.9. EUSKARA	58
5.3.10. GAZTERIA	59
5.3.11. DONOSTIA KIROLA / ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA) 61	
5.4. JARDUKETA EKONOMIKOAK	64
5.4.1. DONOSTIA TURISMO.....	64
5.4.2. DONOSTIA SUSTAPENA, SA.....	65
5.4.3. DBUS.	66
5.4.4. HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	68
5.4.5. PROIEKTU ETA OBRAK.....	69
5.5. JARDUKETA OROKORRAK	71
5.5.1. EKIALDEKO DISTRITUA	71
5.5.2. GIZA BALIABIDEAK.....	72
5.5.3. HERRITARREN PARTE HARTZEA.....	73
5.5.4. KUDEAKETA EKONOMIKOA	75
5.5.5. BARNEKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA BERDINTASUN ARLOAN	76
5.5.6. LIZITAZIOETAN, DIRULAGUNTZETAN ETA HIZARMENETAN GENERO KLAUSULAK TXERTATZEA	76
6. GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA ETA LABURPENA	77

1. LEGE ESPARRUA

AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIARI dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen **martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan adierazitakoa** nabarmentzen da:

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZETARAKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN MARTXOAREN 16KO 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA	
3.5. Art.	“Euskal botere publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute politika eta ekintza guztietan , horietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.”
3.15. Art.	“ Berrikuntza, gardentasuna eta kontu ematea : Euskal botere publikoek berdintasun-politiken berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatu behar dute, eta gardentasuna eta herritarrei kontu ematea bermatu, baliabide publikoen bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion azaltzeko ”.
15.1. Art.	“Euskal administrazio publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute euren aurrekontu publikoetan , bereziki haiek diseinatzeko fasean, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdinkeriak ezabatzen laguntzeko. Horretarako, gidalerroak ezarri behar dituzte, funtzio hori gauzatzeko, horri jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, eta trebakuntza prozesu egokiak abiarazteko. ”
15.2. Art.	“Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Foru Administrazioak eta Toki Administrazioek euren aurrekontuetan urtero esleitu eta zehaztuko dute zer baliabide ekonomiko behar diren lege honetan aurreikusitako funtzioak baliatzeko eta aurreikusitako neurriak exekutatuzeko”.

Gainera, **erkidego mailan**, 2024an “*EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 estrategia*” txostena onartu zen. Aurrekontu publikoen esparruari dagokionez, hauexek ditugu aipagarri:

2030 ESTRATEGIA: EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ESTRATEGIA	
2. helburua	Berdintasun politiken aurrekontua Euskal herri administrazioen aurrekontuaren % 1,5 , gutxienez, berdintasun politikak garatzeko izatea
Esku hartzeko ardatza GOBERNU ONA	1. Helburu estrategikoa : Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoa bermatzea 4. ildo. Baliabide ekonomikoak :

2030 ESTRATEGIA: EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ESTRATEGIA	
	<p>I-1. 13: Aurrekontu orokorrak: Aurrekontu orokorretan Berdintasunerako Legea garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak (berdintasunerako organismoak eta egiturak) esleitzen eta zehazten dituzten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea.</p> <p>I-1. 14: Aurrekontu espezifikoak: beren aurrekontu partidetan urtero berdintasun politika garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak esleitzen eta zehazten dituzten euskal administrazio publikoetako departamentuen, zuzendaritzen edo arloen kopurua handitzea.</p> <p>I-1. 15: Berdintasun unitateen aurrekontuak: beren helburuak betetzeko nahikoa zuzkidura duten eta berdintasun unitateak dauzkaten euskal administrazio publikoen kopurua handitzea.</p>

Era berean, **DONOSTIAKO UDALEKO UDAL ARAUDIAK** berak, **emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planaren (2020-2024)** bidez (Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko urriaren 20an onartua), hainbat neurri jasotzen ditu helburu hori betetzeko:

<p>DONOSTIAKO UDALEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA (2020-2024)</p> <p>LEHENENGO PROIEKTU EMAITZA:</p> <p><i>“Aurrekontu eta kudeaketa plan feministak”</i></p>	<p>Azpi-proiektua: <i>Berdintasuna, erabakiak hartzeko funtsezko elementua:</i></p> <p>1.3 neurria. Aurrekontu parte hartzaileetan berdintasuna indartzea.</p> <p>Azpi-proiektua: <i>Aurrekontuen analisia, genero ikuspegitik</i></p> <p>1.6 neurria. Programa gehiago aztertzea, genero ikuspegitik. 1.7 neurria. Partida moreen gauzatzearen kontrola hobetzea. 1.8 neurria. Kudeaketa planetan jasotako berdintasunerako ekintzak aurrekontuetan sartu diren aztertzea. 1.9 neurria. Aurrekontuko diru sarrerak aztertzen hastea. 1.10 neurria. Aurrekontu programak aztertzean hautemandako desberdintasunak gaingritzeko neurriak proposatzea.</p>
--	--

2. AURREKONTUAK GENERO IKUSPEGIAREKIN

Aurrekontu publikoa da politika publikoak batzen dituen eta horiek diseinatu, planifikatu eta kudeatzen dituen berezko **zeharkako tresna**.

Generoaren ikuspuntua jasotzen duen aurrekontu publiko bat aipatzen dugunean, **emakume eta gizonen artean**, politiko publikoek eragiten duten jardute-eremu guztietan, **posizio sozialeko, ekonomikoko, ordezkartzako eta partaidetzazko partidari dagokionez dagoen aldea** kontuan izateari buruz ari gara mintzatzen.

Generoaren ikuspuntua jasotzen duen aurrekontu publiko batean faktore hori jaso behar da hura zehazterakoan. Azken helburua hura gauzatzuz generoarekin lotuta hautemandako balizko ezberdintasunak ezabatzen ari ote diren edo, aitzitik, horiek mantendu edo, are, areagotzen ari ote diren **ebaluaratu eta neurtu ahal izatea da**.

Aurrekontu publikoek generoa dute, eta ez dira, inolaz ere, neutralak. Beraz, berdintasuna sustatuko duten politikak garatu nahi baldin baditugu, ezinbestekoa da aurrekontuak generoaren ikuspuntu batekin garatu eta aztertzea.

Beraz, bikoitza da genero ikuspegiarekin landutako aurrekontuen helburua:

1. Aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten eragina ezagutzea, eta, ahal den neurrian, askotariko diskriminazioa eragiten duten beste faktore batzuk kontuan hartzea, hala nola adina, migrazio estatusa, errenta maila, arraza eta genero identitatea, besteak beste. Kontua ez da ebaluatzea ea gauza bera gastatzen den emakumeentzat eta gizonentzat, baizik eta gastu hori haien benetako beharretara egokituta dagoen.
2. **Berdintasuna sustatzeko tresna izatea.** Gaur egun, genero mainstreaming da berdintasun eragingarrirantz aurrerapausoak egiteko formula nagusietako bat. Estrategia horren helburua da jarduera publiko guztiak genero ikuspegitik berrikustea, genero desberdintasunak betikotu edo areagotu ez daitezen.

Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoak, eraginkorra izango bada, konpromiso horiek bermatuko dituzten neurriak behar ditu, esate baterako, emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko araudia sortzea, aurrekontu baliabideak emendatzea eta politikak, politiken plangintza eta ebaluazioa eta gardentasunaren kulturaren sustapena garatzeko behar bezala prestatuta eta legitimatuta dauden pertsonak eta egiturak antolatzea.

3. DONOSTIAKO UDALAREN IBILBIDEA GENERO IKUSPEGIA UDAL AURREKONTUETAN TXERTATZEN

Genero-ikuspegia barneratzen duten aurrekontuak eratzeko prozesua 2013ko ekainean hasi zen, Berdintasuneko Negoziatuak Andaluziako Juntak arlo horretan izandako esperientzia ezagutzeko lan-jardunaldia antolatu zuenean. Jardunaldi horretan politikariek eta zuzendariak parte hartu zuten, baita Programakuntza, Azterlanak eta Aurrekontuak unitateko teknikariek, eta hainbat departamentutan aurrekontua eratzeko ardura duten teknikariek ere.

2013ko uztailan, Berdintasunaren eta Ogasunaren atalek metodologia bat adostu zuten. Nahiz eta metodologia horrek Andaluziako esperientziaren elementuak hartu zituen, Donostiako Udalaren tamainara, eskumenetara eta denboretara egokitu zen.

Une horretatik aurrera, aurrekontu programei eta horiei lotutako jardueri zein langileei buruzko informazioa biltzen hasi ziren, Euskal Herriko Unibertsitateko Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga irakasleen aholkularitzarekin.

2014ko otsailan, “Aurrekontuak genero perspektibarekin egiteko gomendio txostena” argitaratu zen, ordurako Udalbatzak onartua zuen 2014ko aurrekontu proposamenari zegokionez, eta horrek ezarri zituen oinarri metodologikoa eta gomendioei jarraituta eman beharreko hurrengo urratsak. Gainera, aurrez bildutako informazioa aztertuta, prozesuan horiek guztiak lehentasunez zein arloekin sakondu behar ziren identifikatu zuen. Hauek ziren arlo horiek: Azpiegiturak eta hiri zerbitzuak, Mugikortasuna, Gizarte Ekintza, Gizarte Sustapena eta Herri Partaidetza eta Donostia Kultura.

2014an zehar gobernu taldeak aurrekontuek duten genero eraginari buruzko prestakuntza jaso zuen, eta, halaber, lan prestakuntza saio bat egin zen aipatutako arloekin eta Ogasuneko eta Berdintasuneko teknikariek.

2014ko abenduan, “Udal aurrekontuak genero ikuspegitik-2015” izeneko txostena aurkeztu zen, 2015eko aurrekontuarekin lotuta, une hartan proposamen-fasean zena.

Hainbat hilabeteko geldialdiaren ondotik, 2015eko azken hiruhilekoan prozesuari heldu zitzaion berriro. Programazio, Ikerketa eta Aurrekontuen unitatearekin zuzeneko lankidetzan, **2015eko abenduan “Udal aurrekontuen analisia genero-ikuspegitik 2016”** izeneko txostena aurkeztu zen, 2016ko aurrekontuarekin lotuta, une hartan proposamen-fasean zena. Azken horretan bi aldaketa nagusi sartu ziren:

- Txostenean udal aurrekontuak aztertu ziren soilik. Langileei eta kontratazioari buruzko azterketa txosten espezifikoak egin ziren.
- Txostena aurrekontu programen arabera egituratu zen, departamentuen edo zuzendaritzen arabera egin beharrean.

Orduetik, Berdintasun Negoziatua eta Programazio, Ikerketa eta Aurrekontuen Unitatea elkarrekin ari dira lanean genero-ikuspegia udal aurrekontuetan sartzeko prozesuan.

Prozesu horren ondorioz, Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **III. Planaren ebaluazio txostenean** (2014-2018) jasotzen den eran:

- **Berdintasun arloko aurrekontu-programa eta sail ugaritako berdintasun-partidak areagotu egin dira**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean jasotzen diren neurriak garatzea ahalbidetu dutenak.
- Berdintasunerako **gastu eraldatzailea areagotu egin da**.
- **Berdintasuna gaineratu da aurrekontuak eratzeko prozesuan**: norabide askotako aurrekontuen proposamena, aurrekontu-eztabaidan gaineratzea, berdintasun arloan errespetatu beharreko gutxieneko politiko batzuk identifikatuz.

Orain arte lortutakoa indartuz, eta aurrera egiten saiatzeko asmoarekin, 2020ko urriaren 20an Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako **Donostiako Udaleko Berdintasunerako IV. Planean, Gobernu Onaren Ardatzaren barnean, Aurrekontuak eta Kudeaketa feministako planak** atalera bideratutako *Proiektu-Emitza* bat jasotzen da. Asko dira esparru horrekin lotutako neurriak:

BERDINTASUNA, FUNTSEZKO ELEMENTUA ERABAKIAK HARTZEARI DAGOKIONEZ:

1.3. Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasuna indartzea.

AURREKONTUAK GENERO-IKUSPEGITIK AZTERTZEA:

- 1.6. Programa gehiago aztertzea genero-ikuspegitik.
- 1.7. “Partida moreen” egikaritzearen gaineko kontrola hobetzea.
- 1.8. Kudeaketako-planetako berdintasun-ekintzak aurrekontuan barneratzen ote diren aztertzea.
- 1.9. Aurrekontuaren sarrera aztertzen hasia.
- 1.10. Aurrekontu-programen analisisian hautemandako ezberdintasunak gainditzeko neurriak proposatzea.

Bestalde, aipatzekoa da **2022ko aurrekontuei dagokionez, 2021eko irailean, Berdintasunerako Unitateko teknikari guztiek parte hartu zutela**, Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Sailak gonbidatuta, administrazio-unitatea bakoitzarekin (sailak, erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak eta sozietate anonimoak) **egindako bileretan**.

Berdintasun-teknikari horietako bakoitzak parte hartu zuen berdintasunaren arloan solaskide diren administrazio-unitateekin egindako bileretan, “partida moreen”, hots, berdintasunerako neurri espezifikoetara bideratutako partiden, jarraipen ahalik eta estuena egin eta genero-ikuspegitik sail bakoitzeko aurrekontuen eragina xehetasun gehiagoz ezagutze aldera. Guztira 19 bilkura egin ziren.

2023ko aurrekontuen prozesuan, metodologian aldaketa batzuk egin ziren, informazioa biltzeko fitxa berri bat sartu baitzen, eta, aldi berean, genero-ikuspegitik aztertutako programen kopurua 40tik 44ra igo zen. **2024ko prozesurako**, aurreko ekitaldiarekiko ildo kontinuista jarraitu zen.

2025eko prozesuarekin lotuta, aldaketa batzuk nabarmendu behar ditugu informazioa biltzeko metodologiari dagokionez:

- **Informazioa biltzeko fitxan atal espezifiko** bat sartu da lizitazioetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan txertatutako genero klausulen berri emateko. Horrekin batera, berdintasun departamentuak landutako Gidalerroen agiri bat.
- **Berdintasun departamentuak gastu eraldatzailearen proposamenak helarazi zizkien** hainbat departamenturi, horiek 2025eko aurrekontuetan esleitu beharreko gastu eraldatzailea identifikatu

aurretik. Proposamen horiek txosten honetan orain arte sartu ez diren programetara zabaldu dira (beste 8 aurrekontu programetara).

Departamentuek erantzun desberdina eman diete aurkeztutako proposamenei, eta, horregatik, 2026ko prozesuari begira, orain arte erabilitako metodologia berrikustea aurreikusten da, lehentasunezko hiru helbururekin:

- Prozesu honetan programa kopuru handiago baten **parte hartzea emendatzeko**.
- **Gastu tipologia** gastu eraldatzaile eta/edo beste kategoria bateko gastu gisa sartzeko **irizpideak berrikusteko eta sistematizatzeko**, kontuan izanik 2030erako % 1,5eko helburua.
- Informazioa biltzeko **barne sistematika berrikusteko eta errazteko**.

Horrekin guztiarekin batera, Udaleko Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Unitateak apustu bat egin du, eta 2024an laguntza teknikoa lizitatu du helburu horrekin. Horretarako, aurrekontu espezifiko bat esleitu du bere partiden barruan.

4. AURREKONTU OROKORRAK

Donostiako Udalaren **2025erako aurrekontu proposamena 517.493.047 €-koa da, eta, beraz, 2024koaren aldean +32.745.921€-koa da igoera (+% 6,76).**

Jarraian, sailkapen motaren arabera aztertuko ditugu igoera/jaitsiera mailak eta aurrekontuen guztizkoan portzentaje handienak dituzten arloak. Hauexek bereizten ditugu:

GASTU ARLOAK

2025erako igoera bat aurreikusten da gastu arlo guztietan, **Zor Publikoa** arloan izan ezik (**-% 4,99ko** jaitsiera). **Jarduera orokorra** izan da igoera handiena izan duen gastu arloa (**+% 24,02**), eta ondotik datoz Jarduera ekonomikoak (+% 19,46), Babes eta sustapen sozialeko jarduerak (+% 5,44), Oinarrizko zerbitzu publikoak (+% 3,78) eta Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena (+% 1,27) arloak.

Aurrekontuen guztizkoan portzentaje handienak dituzten arloei dagokienez, 2024an bezala, **Oinarrizko zerbitzu publikoak** arloa (**% 37,96**), 2024koarekin alderatuta portzentaje txikiagoa duen arren (% 39,4), eta **Jarduera ekonomikoak** arloa (**% 21,29**) dira, azken horrek 2024koarekin alderatuta portzentaje pixka bat handiagoa duelarik.

GASTU-ARLOA	2024		2025		Aldea	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	189.253.377,00	%39,04	196.415.427,00	%37,96	7.162.050,00	%3,78
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA	37.543.184,00	%7,74	39.586.161,00	%7,65	2.042.977,00	%5,44
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	95.192.304,00	%19,64	96.404.510,00	%18,63	1.212.206,00	%1,27
JARDUKETA EKONOMIKOAK	99.730.019,00	%20,57	110.161.438,00	%21,29	10.431.419,00	%10,46
JARDUKETA OROKORRA	51.843.677,00	%10,69	64.298.800,00	%12,43	12.455.123,00	%24,02
ZOR PUBLIKOA	11.184.565,00	%2,31	10.626.711,00	%2,05	-557.854,00	-%4,99
TOTAL	484.747.126,00	%100,00	517.493.047,00	%100,00	32.745.921,00	%6,76

GASTU POLITIKAK

Politika publikoen kasuan (guztira 18 2025erako): 13k igoera izan dute, 4k jaitsiera, eta 1ek zenbateko berberari eutsi dio (Pentsioak).

Igoera izan duten politikei dagokienez, aipagarriak dira **% 20tik gorako** igoera izan duten bi: Finantza eta zerga administrazioa (+8.091.54€, +% 86,25) eta Garraio publikoa (13.416.935, +% 22,89).

Igoera izan duten gainerako programak **+% 0,57 eta +% 10,54 bitarteko igoera izan dute**, goranzko hurrenkera honen arabera: Hezkuntza (+93.009 €, +% 0,57), Osasuna (+33.088 €, +% 0,97), Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak (+257.423 €, +% 1,06), Etxebizitza eta Hirigintza (+1.340.706 €, +% 2,71), Komunitate Ongizatea (+2.536.451 €, +% 4), Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna (+2.444.083 €, +% 4,09), Kultura (+2.277.886 €, +% 4,97), Ingurumena (840.810 €, +% 5,07), Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena (+2.042.977 €, +% 5,44), Gobernu organoak (+685.664 €, +% 9,05%) eta Zerbitzu orokorrak (+3.677.919 €, +% 10,54).

Jaitsiera izan duten politikei dagokienez, hauexek dira: Kirola (-1.191.777 €, -% 4,01), Azpiegiturak (-3.145.731 €, -% 18,95), Beste jarduera ekonomiko batzuk (-97.208 €, -% 80,09) eta Zor publikoa (-557.854 €, -% 4,99).

GASTU POLITIKAK	2024		2025		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	189.253.377,00	%39,04	196.415.427,00	%37,96	7.162.050,00	%3,78
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	59.692.401,00	%12,31	62.136.484,00	%12,01	2.444.083,00	%4,09
Etxebizitza eta Hirigintza	49.504.899,00	%10,21	50.845.605,00	%9,83	1.340.706,00	%2,71
Komunitate-Ongizatea	63.483.417,00	%13,10	66.019.868,00	%12,76	2.536.451,00	%4,00
Ingurumena	16.572.660,00	%3,42	17.413.470,00	%3,36	840.810,00	%5,07
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA	37.543.184,00	%7,74	39.586.161,00	%7,65	2.042.977,00	%5,44
Erretiro pentsioak	5.000,00	%0,00	5.000,00	%0,00	0,00	%0,00
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	37.538.184,00	%7,74	39.581.161,00	%7,65	2.042.977,00	%5,44
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	95.192.304,00	%19,64	96.404.510,00	%18,63	1.212.206,00	%1,27
Osasuna	3.400.419,00	%0,70	3.433.507,00	%0,66	33.088,00	%0,97
Hezkuntza	16.249.787,00	%3,35	16.342.796,00	%3,16	93.009,00	%0,57
Kultura	45.829.507,00	%9,45	48.107.393,00	%9,30	2.277.886,00	%4,97
Kirola	29.712.591,00	%6,13	28.520.814,00	%5,51	-1.191.777,00	-%4,01
JARDUKETA EKONOMIKOAK	99.730.019,00	%20,57	110.161.438,00	%21,29	10.431.419,00	%10,46
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	24.395.778,00	%5,03	24.653.201,00	%4,76	257.423,00	%1,06
Garraio publikoa	58.610.546,00	%12,09	72.027.481,00	%13,92	13.416.935,00	%22,89
Azpiegiturak	16.602.325,00	%3,42	13.456.594,00	%2,60	-3.145.731,00	-%18,95
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	121.370,00	%0,03	24.162,00	%0,00	-97.208,00	-%80,09
JARDUKETA OROKORRA	51.843.677,00	%10,69	64.298.800,00	%12,43	12.455.123,00	%24,02
Gobernu organoak	7.573.062,00	%1,56	8.258.726,00	%1,60	685.664,00	%9,05
Asministrazio orokorra	34.888.644,00	%7,20	38.566.563,00	%7,45	3.677.919,00	%10,54
Finantza eta zerga administrazioa	9.381.971,00	%1,94	17.473.511,00	%3,38	8.091.540,00	%86,25
ZOR PUBLIKOA	11.184.565,00	%2,31	10.626.711,00	%2,05	-557.854,00	-%4,99
Zor publikoa	11.184.565,00	%2,31	10.626.711,00	%2,05	-557.854,00	-%4,99
GUZTIRA	484.747.126,00	%100,00	517.493.047,00	%100,00	32.745.921,00	%6,76

Azkenik, guztizko aurrekontuetan portzentaje handiena (**% 10etik gorakoa**) hartzen duten politikei dagokienez, hiru dira denera: Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna (% 12,01), Komunitate Ongizatea (% 12,76) eta Garraio publikoa % 13,92).

AURREKONTU PROGRAMAK

2024ko aurrekontuetan bezala, 2025erako **Next Generation laguntzak** programa bat sortzean eta beste bat mantentzean islatzen dira:

- **“Next Haurreskolak” izan da sortutako programa berria (1.828.314 €)**, 0 eta 2 urte bitarteko egungo hezkuntza eskaintza zabaltzeko balioko duten 3 haur eskola berri sortzeko. Erriberetan, Intxaurren eta Grosen antolatuko dira. Gastu hau garrantzitsua da genero ikuspegitik, zainketekin lotutako azpiegiturekin lotuta baitago.
- **Electrizen da mantendu den programa (7.447.000,00 €)**, Dbusen aurrekontuarekin lotuta eta kudeatuta, helburu nagusia baita autobus elektrikoak erostea eta instalatzea.

Azkenik, Next Generation laguntzekin lotuta egon gabe, 2024ko urtearekin alderatuta Hilerria programa sartu da eta desagerrarazi da *Erretiro aurreratua*ren erreserbak (Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko uztailaren 5ean hartutako erabakiari jarraiki, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia doktrinan oinarrituta).

Jarraian, gainerako programek izandako aldaketak azalduko ditugu.

% 100dik gorako igoerak izan dituzten aurrekontu programak **4 dira, zehazki hauexek:** Mugikortasun bertikala (+600.000 €, +% 220,63), Kirol instalazioak (+1.379.916 €, +% 104,53), Informatika (Udala) (+1.270.000 €, +% 1.587,50) eta Kudeaketa ekonomikoa (+6.328.944 €, +% 124,02).

8 programa dauzkagu **% 20 eta % 100 bitarteko igoerekin:** Artikutza (+413.061 €, +% 43,13), Hots- argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa (+117.264 €, +% 44,25), Tabakalera (+374.407 €, +% 21,31), Dbus (+13.421.443 €, +% 23,03), Hiri proiektua (+417.733 €, +% 74,24), Ekipamendu plana (+543.800 €, +% 82,04), Zeharkako zerbitzuak (+267.317 €, +% 65,39) eta Herritarren parte hartzea (+1.043.995 €, +% 29,23).

11 dira gehien apaltzen diren programak, **% 20tik gorako murrizketarekin:** Bide publikoak (-826.361 €, -% 21,30), Polloe (-501.229 €, -% 25,47), Zaharren egoitzak (-769.388 €, -% 33,50), Anoeta Kiroldegia (-2.177.363 €, -% 46,13), Uliako aterpetxea (-118.101 €, -% 21,21), Garapen ekonomikoa (-1.088.430 €, -% 31,33), Bidaiarien taldekako hiri garraioa (-600 €, -% 50), Proiektu eta Obrak (-3.414.019 €, -% 34,04), Kontsumitzaileak informatzeko udal bulegoa (-97.208 €, -% 80,09), Hauteskundeak (-39.000 €, -% 97,50) eta Ezustekoak (-240.181 €, -% 27,29).

Guztizko aurrekontuetan portzentaje handienak (% 5etik gorakoak) dauzkaten programei dagokienez, hiru dira, aurreko bi ekitaldietan izandako berberak: **Udaltzaingoa** (% 5,87), **Donostia Kultura** (% 6,90) eta **Dbus** (% 13,86).

AURREKONTU PROGRAMAK	2024		2025		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	189.253.377,00	%39,04	196.415.427,00	%37,96	7.162.050,00	%3,78
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	59.692.401,00	%12,31	62.136.484,00	%12,01	2.444.083,00	%4,09
Udaltzaingoa	28.717.029,00	%5,92	30.381.587,00	%5,87	1.664.558,00	%5,80
Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua	6.860.464,00	%1,42	6.756.588,00	%1,31	-103.876,00	-%1,51
Eskailerak, arrapalak eta igogailuak	579.237,00	%0,12	577.661,00	%0,11	-1.576,00	-%0,27
Mugikortasun bertikala	271.944,00	%0,06	871.944,00	%0,17	600.000,00	%220,63
Hiri mugikortasuna	12.072.981,00	%2,49	11.645.981,00	%2,25	-427.000,00	-%3,54
Herri babesa	287.797,00	%0,06	273.700,00	%0,05	-14.097,00	-%4,90
Prebentzio eta suhiltzaile zerbitzua eta sorospena	10.902.949,00	%2,25	11.629.023,00	%2,25	726.074,00	%6,66
Etxebizitza et Hirigintza	49.504.899,00	%10,21	50.845.605,00	%9,83	1.340.706,00	%2,71
Hirigintza	15.535.925,00	%3,20	16.939.238,00	%3,27	1.403.313,00	%9,03
Donostiako etxegintza enpresa erakunde publikoa	20.932.252,00	%4,32	22.465.300,00	%4,34	1.533.048,00	%7,32
Eraikntzen birgaitzea	3.250.000,00	%0,67	3.250.000,00	%0,63	0,00	
Bide publikoak	3.879.121,00	%0,80	3.052.760,00	%0,59	-826.361,00	-%21,30
Zolaketa eta asfaltatzea	5.907.601,00	%1,22	5.138.307,00	%0,99	-769.294,00	-%13,02
Komunitate-ongizatea	63.483.417,00	%13,10	66.019.868,00	%12,76	2.536.451,00	%4,00
Saneamendua	4.299.915,00	%0,89	5.071.383,00	%0,98	771.468,00	%17,94
Ura	3.496.367,00	%0,72	3.788.070,00	%0,73	291.703,00	%8,34
Ura eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa	897.618,00	%0,19	916.318,00	%0,18	18.700,00	%2,08
Hiriko hondakin solidoen bilketa	8.959.057,00	%1,85	9.423.401,00	%1,82	464.344,00	%5,18
Honkakin kudeaketa: San Marcos	3.679.868,00	%0,76	3.611.324,00	%0,70	-68.544,00	-%1,86
Honkakin tratatzea: San Marcos	10.701.010,00	%2,21	11.750.959,00	%2,27	1.049.949,00	%9,81
Bide eta etxaurren garbiketa	16.238.765,00	%3,35	16.689.942,00	%3,23	451.177,00	%2,78
Polloe	1.967.810,00	%0,41	1.466.581,00	%0,28	-501.229,00	-%25,47
Hilerriak	0,00	%0,00	5.000,00	%0,00		
Herri-argiteria	5.577.348,00	%1,15	5.484.500,00	%1,06	-92.848,00	-%1,66
Saneamendua eta arazketa: Añarbe	7.665.659,00	%1,58	7.812.390,00	%1,51	146.731,00	%1,91
Ingurumena	16.572.660,00	%3,42	17.413.470,00	%3,36	840.810,00	%5,07
Ingurumena: zuzendaritza eta administrazioa	488.770,00	%0,10	499.225,00	%0,10	10.455,00	%2,14
Parke eta lorategiak	8.983.256,00	%1,85	9.075.767,00	%1,75	92.511,00	%1,03
Artikutza	957.820,00	%0,20	1.370.881,00	%0,26	413.061,00	%43,13
Cristina Enea	754.561,00	%0,16	799.416,00	%0,15	44.855,00	%5,94
Iraunkortasuna	1.678.232,00	%0,35	1.672.895,00	%0,32	-5.337,00	-%0,32
Hiriguneetako hots-, argi eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa	265.010,00	%0,05	382.274,00	%0,07	117.264,00	%44,25
Hondartzak	3.445.011,00	%0,71	3.613.012,00	%0,70	168.001,00	%4,88
BABES ETA SUSTAPEN ZOZIALEKO JARDUKETAK	37.543.184,00	%7,74	39.586.161,00	%7,65	2.042.977,00	%5,44
Erretiro pentsioak	5.000,00	%0,00	5.000,00	%0,00	0,00	%0,00
Klase pasiboak	5.000,00	%0,00	5.000,00	%0,00	0,00	%0,00
Gizarte-Zerbitzuak eta gizarte-sustapena	37.538.184,00	%7,74	39.581.161,00	%7,65	2.042.977,00	%5,44
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	839.867,00	%0,17	886.928,00	%0,17	47.061,00	%5,60
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.998.949,00	%1,03	5.515.901,00	%1,07	516.952,00	%10,34
Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza	2.340.956,00	%0,48	2.515.208,00	%0,49	174.252,00	%7,44
Donostia Lagunkoia	99.470,00	%0,02	101.758,00	%0,02	2.288,00	%2,30
Apartamentu tutelatuak	2.256.313,00	%0,47	2.500.524,00	%0,48	244.211,00	%10,82
Gizarte abegi etxea	1.810.430,00	%0,37	1.902.836,00	%0,37	92.406,00	%5,10
Gizarteratzea	5.337.593,00	%1,10	5.620.744,00	%1,09	283.151,00	%5,30
Adin txikikoen prebentzioa eta familia	3.502.716,00	%0,72	4.010.670,00	%0,78	507.954,00	%14,50
Adineko pertsonen sustapena	688.904,00	%0,14	744.575,00	%0,14	55.671,00	%8,08
Zaharren egoitzak	907.465,00	%0,19	964.843,00	%0,19	57.378,00	%6,32
Etxez etxeko laguntza	9.948.044,00	%2,05	9.999.707,00	%1,93	51.663,00	%0,52
Gizarte larrialdietarako laguntzak	3.728.741,00	%0,77	3.728.741,00	%0,72	0,00	%0,00
Berdintasuna	1.078.736,00	%0,22	1.088.726,00	%0,21	9.990,00	%0,93

AURREKONTU PROGRAMAK	2024		2025		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	95.192.304,00	%19,64	96.404.510,00	%18,63	1.212.206,00	%1,27
Osasuna	3.400.419,00	%0,70	3.433.507,00	%0,66	33.088,00	%0,97
Komunak	658.322,00	%0,14	661.922,00	%0,13	3.600,00	%0,55
Osasun sustapena	215.323,00	%0,04	239.360,00	%0,05	24.037,00	%11,16
Osasun publikoa eta animalien ongizatea	1.324.588,00	%0,27	1.497.375,00	%0,29	172.787,00	%13,04
Sorospen etxea	21.923,00	%0,00	22.427,00	%0,00	504,00	%2,30
La Perla balnearioa	1.180.263,00	%0,24	1.012.423,00	%0,20	-167.840,00	-%14,22
Hezkuntza	16.249.787,00	%3,35	16.342.796,00	%3,16	93.009,00	%0,57
Hezkuntza: zuzendaritza eta administrazioa	334.192,00	%0,07	274.291,00	%0,05	-59.901,00	-%17,92
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	8.809.006,00	%1,82	8.852.570,00	%1,71	43.564,00	%0,49
Udalaren musika eta dantza eskola	5.746.790,00	%1,19	5.805.849,00	%1,12	59.059,00	%1,03
Heziketarako programak	326.360,00	%0,07	338.502,00	%0,07	12.142,00	%3,72
Giza eskubideak	607.150,00	%0,13	626.938,00	%0,12	19.788,00	%3,26
Kultur aniztasuna	426.289,00	%0,09	444.646,00	%0,09	18.357,00	%4,31
Kultura	45.829.507,00	%9,45	48.107.393,00	%9,30	2.277.886,00	%4,97
Donostia Kultura	33.125.807,00	%6,83	35.683.297,00	%6,90	2.557.490,00	%7,72
Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	178.481,00	%0,04	182.238,00	%0,04	3.757,00	%2,10
Tabakalera	1.757.260,00	%0,36	2.131.667,00	%0,41	374.407,00	%21,31
Kultura: sustatzea eta bultzatzea	2.043.900,00	%0,42	2.027.100,00	%0,39	-16.800,00	-%0,82
Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	711.322,00	%0,15	733.913,00	%0,14	22.591,00	%3,18
Euskara	3.039.641,00	%0,63	3.108.109,00	%0,60	68.468,00	%2,25
Zahar etxeak	2.296.725,00	%0,47	1.527.337,00	%0,30	-769.388,00	-%33,50
Gazteria	2.676.371,00	%0,55	2.713.732,00	%0,52	37.361,00	%1,40
Kirola	29.712.591,00	%6,13	28.520.814,00	%5,51	-1.191.777,00	-%4,01
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	182.000,00	%0,04	182.000,00	%0,04	0,00	%0,00
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	6.154.220,00	%1,27	5.163.745,00	%1,00	-990.475,00	-%16,09
Donostia Kirola	3.628.128,00	%0,75	4.038.525,00	%0,78	410.397,00	%11,31
Kirol instalakuntzak	1.320.084,00	%0,27	2.700.000,00	%0,52	1.379.916,00	%104,53
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	13.708.529,00	%2,83	13.894.277,00	%2,68	185.748,00	%1,35
Anoeta Kiroldegia	4.719.630,00	%0,97	2.542.267,00	%0,49	-2.177.363,00	-%46,13
JARDUKETA EKONOMIKOAK	99.730.019,00	%20,57	110.161.438,00	%21,29	10.431.419,00	%10,46
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	24.395.778,00	%5,03	24.653.201,00	%4,76	257.423,00	%1,06
Azokak	4.550,00	%0,00	4.550,00	%0,00	0,00	%0,00
Donostia Turismo	4.399.546,00	%0,91	4.413.441,00	%0,85	13.895,00	%0,32
La Sirena aterpetxea	624.503,00	%0,13	619.580,00	%0,12	-4.923,00	-%0,79
Uliako aterpetxea	556.861,00	%0,11	438.760,00	%0,08	-118.101,00	-%21,21
Aterpetxeak: zuzendaritza eta administrazioa	50.360,00	%0,01	50.304,00	%0,01	-56,00	-%0,11
Ekonomiko-garapena	3.474.494,00	%0,72	2.386.064,00	%0,46	-1.088.430,00	-%31,33
Fomento S.A.	15.285.464,00	%3,15	16.740.502,00	%3,23	1.455.038,00	%9,52
Garraio publikoa	58.610.546,00	%12,09	72.027.481,00	%13,92	13.416.935,00	%22,89
Garraioaren arloko administrazio orokorra	282.797,00	%0,06	278.889,00	%0,05	-3.908,00	-%1,38
Bidaiaaren taldekako hiri garraioa	1.200,00	%0,00	600,00	%0,00	-600,00	-%50,00
Beste bidaiarien garraioa	38.600,00	%0,01	38.600,00	%0,01	0,00	%0,00
Dbus	58.287.949,00	%12,02	71.709.392,00	%13,86	13.421.443,00	%23,03
Azpiegiturak	16.602.325,00	%3,42	13.456.594,00	%2,60	-3.145.731,00	-%18,95
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.507.543,00	%0,31	1.668.604,00	%0,32	161.061,00	%10,68
Proiektu eta obrak	10.028.373,00	%2,07	6.614.354,00	%1,28	-3.414.019,00	-%34,04
Uraren hornikuntza: Añarbe	5.066.409,00	%1,05	5.173.636,00	%1,00	107.227,00	%2,12
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	121.370,00	%0,03	24.162,00	%0,00	-97.208,00	-%80,09
Oficina municipal de información al consumidor/a	121.370,00	%0,03	24.162,00	%0,00	-97.208,00	-%80,09

AURREKONTU PROGRAMAK	2024		2025		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
JARDUKETA OROKORRAK	51.843.677,00	%10,69	64.298.800,00	%12,43	12.455.123,00	%24,02
Gobernu organoak	7.573.062,00	%1,56	8.258.726,00	%1,60	685.664,00	%9,05
Udal talde politikoak	4.366.379,00	%0,90	4.508.246,00	%0,87	141.867,00	%3,25
Gobernu organoak	2.643.980,00	%0,55	2.770.044,00	%0,54	126.064,00	%4,77
Hiri proiektua	562.703,00	%0,12	980.436,00	%0,19	417.733,00	%74,24
Zerbitzu orokorrak	34.888.644,00	%7,20	38.566.563,00	%7,45	3.677.919,00	%10,54
Komunikazioak	784.101,00	%0,16	838.270,00	%0,16	54.169,00	%6,91
Eraikinak	2.236.313,00	%0,46	2.225.926,00	%0,43	-10.387,00	-%0,46
Informatika (Udala)	80.000,00	%0,02	1.350.000,00	%0,26	1.270.000,00	%1587,50
Informatika	8.930.611,00	%1,84	9.481.773,00	%1,83	551.162,00	%6,17
Idazkaritza orokorra eta lege zerbitzuak	1.550.953,00	%0,32	1.704.108,00	%0,33	153.155,00	%9,87
Ekialdeko distritua	455.153,00	%0,09	505.426,00	%0,10	50.273,00	%11,05
Lehendakaritza	1.745.417,00	%0,36	1.825.671,00	%0,35	80.254,00	%4,60
Agiritegia	1.234.548,00	%0,25	1.113.305,00	%0,22	-121.243,00	-%9,82
Giza baliabideak	3.827.737,00	%0,79	3.595.235,00	%0,69	-232.502,00	-%6,07
Barne zerbitzu orokorrak	3.642.419,00	%0,75	3.798.457,00	%0,73	156.038,00	%4,28
Itzulpen bulegoa	407.792,00	%0,08	411.356,00	%0,08	3.564,00	%0,87
Ibilgailuak	911.590,00	%0,19	886.344,00	%0,17	-25.246,00	-%2,77
Ekipamendu plana	662.839,00	%0,14	1.206.639,00	%0,23	543.800,00	%82,04
Zeharkako zerbitzuak	408.795,00	%0,08	676.112,00	%0,13	267.317,00	%65,39
Udaleko informazio unitatea	725.965,00	%0,15	731.505,00	%0,14	5.540,00	%0,76
Herritarren parte hartzea	3.571.996,00	%0,74	4.615.991,00	%0,89	1.043.995,00	%29,23
Herritarrenganako arreta	2.792.234,00	%0,58	2.959.445,00	%0,57	167.211,00	%5,99
Hauteskundeak	40.000,00	%0,01	1.000,00	%0,00	-39.000,00	-%97,50
Ezusteak	880.181,00	%0,18	640.000,00	%0,12	-240.181,00	-%27,29
Finantza eta zerga administrazioa	9.381.971,00	%1,94	17.473.511,00	%3,38	8.091.540,00	%86,25
Kudeaketa ekonomikoa	5.103.170,00	%1,05	11.432.114,00	%2,21	6.328.944,00	%124,02
Turismo-sektorearen jasagarritasuna eta modernizazioa	30.000,00	%0,01	0,00	%0,00	-30.000,00	-%100,00
Next Hurrekolak	0,00	%0,00	1.828.314,00	%0,35	1.828.314,00	
Programa Zaintza Gertu 2	129.813,00	%0,03	0,00	%0,00	-129.813,00	-%100,00
Tributu sistemaren kudeaketa	4.118.988,00	%0,85	4.213.083,00	%0,81	94.095,00	%2,28
ZOR PUBLIKOA	11.184.565,00	%2,31	10.626.711,00	%2,05	-557.854,00	-%4,99
Zor publikoa	11.184.565,00	%2,31	10.626.711,00	%2,05	-557.854,00	-%4,99
Zor publikoa	11.184.565,00	%2,31	10.626.711,00	%2,05	-557.854,00	-%4,99
GUZTIRA	484.747.126,00	%100,00	517.493.047,00	%100,00	32.745.921,00	%6,76

GASTUEN SAILKAPEN EKONOMIKOA

Gastu kapituluaren azterketatik haxe ondorioztatzen da:

- **Lau dira handitutako kapituluak**, igoera handiena Inbertsio errealak kapituluak izan duelarik (+19.659.687 €, +% 32,23), eta ondotik, Transferentzia arruntak (+2.048.993 €, +% 5,58), Pertsonal gastuak (+8.681.988 €, +% 4,94) eta Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (+8.254.410 €, +% 4,63) kapituluak.
- **Lau kapitulu apaldu dira**: Kapital-transferentziak (-5.085.710 €, -% 49,54), Kreditu globala (-240.181 €, -% 27,29), Finantza-aktiboak (-184.904 €, -% 16,91), Finantza-gastuak (-287.202 €, -% 4,23) eta Finantza pasiboak (-101.160 €, -% 0,73).
- 2024an bezala, 1. kapitulua (% 35,66) eta 2. kapitulua (% 36,03) dira **aurrekontuetan proportzio handiena dutenak**.

GASTUAK	2024		2025		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
1. Pertsonal gastuak	175.857.893,00	%36,28	184.539.881,00	%35,66	8.681.988,00	%4,94
2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	178.187.808,00	%36,76	186.442.218,00	%36,03	8.254.410,00	%4,63
3. Finantza-gastuak	6.793.113,00	%1,40	6.505.911,00	%1,26	-287.202,00	-%4,23
4. Transferentzia arruntak	36.746.019,00	%7,58	38.795.012,00	%7,50	2.048.993,00	%5,58
5. Kreditu globala	880.181,00	%0,18	640.000,00	%0,12	-240.181,00	-%27,29
6. Inbertsio errealak	60.993.771,00	%12,58	80.653.458,00	%15,59	19.659.687,00	%32,23
7. Kapital-transferentziak	10.264.938,00	%2,12	5.179.228,00	%1,00	-5.085.710,00	-%49,54
8. Finantza-aktiboak	1.093.733,00	%0,23	908.829,00	%0,18	-184.904,00	-%16,91
9. Finantza-pasiboak	13.929.670,00	%2,87	13.828.510,00	%2,67	-101.160,00	-%0,73
GUZTIRA	484.747.126,00	%100,00	517.493.047,00	%100,00	32.745.921,00	%6,76

2025eko INBERTSIOAK

2025ean, 85.832.686 €-koa izango da 6. eta 7. kapituluaren bitartez egin beharreko inbertsio finkatuen zenbatekoa. 2024koarekin alderatuta, +14.573.977 €-koa da igoera (**+% 20,45**).

Aurrekontu programei dagokienez, honako hauetan biltzen dira inbertsio handienak, beheranzko hurrenkeran: Dbus (% 26,71), Hirigintza (% 14,12), Donostiako Etxegintza erakunde publikoa (% 7,95) eta Kudeaketa ekonomikoa (% 7,46).

Aurreko urteetan behin eta berriz azaldu dugunez, komenigarria litzateke etorkizunean aurreikusitako inbertsioei buruzko informazio zabalagoa izatea: inbertsioak erantzuten dion premiaren deskribapena, eragiten duen publiko hartzailea sexuaren arabera bereizita... eta batzuk edo besteak lehenesteko irizpideak. Hala eta guztiz ere, genero ikuspegitik garrantzitsua baita, aipagarriak dira programa hauetan sartutako inbertsioak:

- **Udaltzaingoa** (75.000 €) **indarkeria matxistaren biktimak artatzeko gunea** egokitzeko.
- **Hirigintza: Hirigintza plangintzan genero eragina** egiaztatzeko txostenak (15.000 €). Eta laguntza genero neurriak aintzat hartuko dituen **urbanizazio ordenantza bat lantzeko** (15.000 €).
- **Berdintasuna** (50.000 €) **Emakumeen Etxearen kokapen berrirako**.
- **Gazteria**: 75.000 €-ko kopuruari **eusten zaio, Parte Zaharreen Haurtxoko** zerbitzua emateko espazio berri bat gaitzeko.
- **Proiektu eta obrak**: 300.000 €-ko kopuruari eusten zaio Herreran **Puntu Kritiko** bat moldatzeko eta 200.000 € Miserikordia kaleko puntu kritikoa hobetzeko (azken hori 2023an eta 2024an esleitu zen, baina oraingoz ez da gauzatu).

AURREKONTU PROGRAMAK	2025	
	GUZTIRA	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	30.391.908,00	35,41%
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	3.434.455,00	4,00%
Udaltzaingoa	304.000,00	0,35%
Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua	30.000,00	0,03%
Eskailerak, arrapalak eta igogailuak	210.000,00	0,24%
Mugikortasun bertikala	871.944,00	1,02%
Hiri mugikortasuna	1.008.511,00	1,17%
Prebentzio eta suhiltzaile zerbitzua eta sorospena	1.010.000,00	1,18%
Etxebizitza et Hirigintza	23.978.996,00	27,94%
Hirigintza	12.123.865,00	14,12%
Donostiako etxebizitza enpresa erakunde publikoa	6.825.000,00	7,95%
Eraikuntzan birgaitzea	3.250.000,00	3,79%
Bide publikoak	980.131,00	1,14%
Zolaketa eta asfaltatzea	800.000,00	0,93%
Komunitate-ongizatea	1.200.000,00	1,40%
Saneamendua	100.000,00	0,12%
Ura	600.000,00	0,70%
Hiriko hondakin solidoen bilketa	500.000,00	0,58%
Ingurumena	1.778.457,00	2,07%
Parke eta lorategiak	999.999,00	1,17%
Artikutza	505.668,00	0,59%
Iraunkortasuna	122.790,00	0,14%
Hiriguneetako nots-, argi eta atmosfer-a-kutsadura	100.000,00	0,12%
Hondartzak	50.000,00	0,06%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	400.000,00	0,47%
Gizarte-Zerbitzuak eta gizarte-sustapena	400.000,00	0,47%
Gizarte zerbitzuen zentroak	350.000,00	0,41%
Berdintasuna	50.000,00	0,06%
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	7.450.367,00	8,68%
Hezkuntza	550.000,00	0,64%
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	550.000,00	0,64%
Kultura	2.500.367,00	2,91%
Donostia Kultura	2.127.700,00	2,48%
Tabakalera	221.667,00	0,26%
Zahar etxeak	76.000,00	0,09%
Gazteria	75.000,00	0,09%
Kirola	4.400.000,00	5,13%
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	500.000,00	0,58%
Kirol instalakuntzak	2.700.000,00	3,15%
Anoeta Kiroldegia	1.200.000,00	1,40%
JARDUKETA EKONOMIKOAK	30.799.611,00	35,88%
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	3.835.355,00	4,47%
Donostia Turismo	180.200,00	0,21%
La Sirena aterpetxea	20.000,00	0,02%
Ekonomi-garapena	2.337.634,00	2,72%
Donostiako Sustapena, S.A	1.297.521,00	1,51%
Garraio publikoa	22.932.513,00	26,72%
Garraioaren arloko administrazio orokorra	5.716,00	0,01%
Dbus	22.926.797,00	26,71%
Azpiegiturak	4.031.743,00	4,70%
HMZ: Zuzendaritza eta administrazioa	10.500,00	0,01%
Proiektu eta obrak	4.021.243,00	4,68%
JARDUKETA OROKORRAK	16.790.800,00	19,56%
Gobernu organoak	1.398.142,00	1,63%
Gobernu organoak	1.344.142,00	1,57%
Hiri proiektua	54.000,00	0,06%
Zerbitzu orokorrak	7.163.999,00	8,35%
Eraikinak	234.932,00	0,27%
Informatika (Udala)	1.350.000,00	1,57%
Informatika	891.118,00	1,04%
Ekialdeko distritua	435.426,00	0,51%
Lehendakaritza	33.022,00	0,04%
Agiritegia	545.000,00	0,63%
Barne zerbitzu orokorrak	223.732,00	0,26%
Ekipamendu-plana	757.639,00	0,88%
Herritarren parte hartzea	2.693.130,00	3,14%
Finantza eta zerga administrazioa	8.228.659,00	9,59%
Kudeaketa ekonomikoa	6.400.345,00	7,46%
Next Haureskolak	1.828.314,00	2,13%
GUZTIRA	85.832.686,00	100,00%

5. GENEROAREN IKUSPEGITIK GARRANTZI HANDIENA DUTEN PROGRAMEN JARRAIPENA ETA GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA

2025erako aurrekontuen azterketan **hiru aurrekontu programa berriren** azterketa sartu da, horietan guztietan gastu eraldatzailerako zenbateko jakin bat hauteman baita. Zehazki, hauexek dira programa horiek:

- Ekialdeko distritua,
- Giza baliabideak,
- Kudeaketa ekonomikoa.

Beraz, 2025eko aurrekontuari begira, **47 programa aztertu** dira, 2024an baino hiru gehiago. Horrela, aurrekontu programen guztizkoaren % 44,76 aztertu da (2024an % 41,12), **udal aurrekontu osoaren % 67,49** (2024an % 66,51).

Programa horien eboluzioari dagokionez, 2024ko ekitaldiarekin alderatuta, oro har +% 8,51 igo dira, eta haxe da programen banaketa:

- **Programa horietatik 39k** 2024ko aurrekontuetan baino aurrekontu **handiagoa** dute, udal aurrekontu osoaren % 59,60 hartzen dute. **Horietako 18** programatan, **2025erako aurrekontu globalaren igoeraren ehunekoa (+% 6,76) baino handiagoa da aurrekontuaren igoera**, eta programa horiek aurrekontu osoaren % 39,36 hartzen dute.
- **7 programak**, aurrekontu osoaren % 6,47 hartzen dutenak, **apaldu egin dira** beren aurrekontu zuzkiduran.
- **Programa batek** 2024ko zuzkidura berberari **eusten dio** (Gizarte larrialdietarako laguntzak), eta aurrekontu osoaren % 0,72 hartzen du.

Hurrengo orrialdeetan aztertutako programak zehazten dira, eta taula batean jasotzen dira programen banaketa, ondoko sailkapenaren arabera:

- Udal aurrekontua baino igoera handiagoa (+% 6,76)
- Udal aurrekontua baino igoera txikiagoa.
- Jaitsiera eta/edo berdina.

Ondoren, **programa bakoitzaren azterketa zehatza** aurkeztuko dugu (*Aurrekontu eboluzioa, gastu eraldatzailea eta gomendioak*), eta dokumentuaren amaieran **gastu eraldatzaile globalaren eboluzioaren laburpen** atal bat sartuko dugu.

AZTERTUTAKO AURREKONTU PROGRAMAK	2024		2025		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
Udaltzaingoa	28.717.029,00	%8,91	30.381.587,00	%8,70	1.664.558,00	%5,80
Mugikortasun bertikala	271.944,00	%0,08	871.944,00	%0,25	600.000,00	%220,63
Hiri mugikortasuna	12.072.981,00	%3,74	11.645.981,00	%3,33	-427.000,00	-%3,54
Hirigintza	15.535.925,00	%4,82	16.939.238,00	%4,85	1.403.313,00	%9,03
Donostiako etxegintza enpresa erakunde publikoa	20.932.252,00	%6,49	22.465.300,00	%6,43	1.533.048,00	%7,32
Bide publikoak	3.879.121,00	%1,20	3.052.760,00	%0,87	-826.361,00	-%21,30
Herri-argiteria	5.577.348,00	%1,73	5.484.500,00	%1,57	-92.848,00	-%1,66
Parke eta lorategiak	8.983.256,00	%2,79	9.075.767,00	%2,60	92.511,00	%1,03
Hondartzak	4.998.949,00	%1,07	3.613.012,00	%1,03	168.001,00	%4,88
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.998.949,00	%1,55	5.515.901,00	%1,58	516.952,00	%10,34
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	839.867,00	%0,26	886.928,00	%0,25	47.061,00	%5,60
Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza	2.340.956,00	%0,73	2.515.208,00	%0,72	174.252,00	%7,44
Donostia Lagunkoia	99.470,00	%0,03	101.758,00	%0,03	2.288,00	%2,30
Apartamentu tutelatuak	2.256.313,00	%0,70	2.500.524,00	%0,72	244.211,00	%10,82
Gizarte abegi etxea	1.810.430,00	%0,56	1.902.836,00	%0,54	92.406,00	%5,10
Gizarteratzea	5.337.593,00	%1,66	5.620.744,00	%1,61	283.151,00	%5,30
Adin txikikoen prebentzioa eta familia	3.502.716,00	%1,09	4.010.670,00	%1,15	507.954,00	%14,50
Adineko pertsonen sustapena	688.904,00	%0,21	744.575,00	%0,21	55.671,00	%8,08
Zaharren egoitzak	907.465,00	%0,28	964.843,00	%0,28	57.378,00	%6,32
Etxez etxeko laguntza	9.948.044,00	%3,09	9.999.707,00	%2,86	51.663,00	%0,52
Gizarte larrialdietarako laguntzak	3.728.741,00	%1,16	3.728.741,00	%1,07	0,00	%0,00
Berdintasuna	1.078.736,00	%0,33	1.088.726,00	%0,31	9.990,00	%0,93
Osasun sustapena	215.323,00	%0,07	239.360,00	%0,07	24.037,00	%11,16
Osasun publikoa eta animalien ongizatea	1.324.588,00	%0,41	1.497.375,00	%0,43	172.787,00	%13,04
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	8.809.066,00	%2,73	8.852.570,00	%2,53	43.564,00	%0,49
Udalaren musika eta dantza eskola	5.746.790,00	%1,78	5.805.849,00	%1,66	59.059,00	%1,03
Heziketarako programak	326.360,00	%0,10	338.502,00	%0,10	12.142,00	%3,72
Giza eskubideak	607.150,00	%0,19	626.938,00	%0,18	19.788,00	%3,26
Kultur aniztasuna	426.289,00	%0,13	444.646,00	%0,13	18.357,00	%4,31
Donostia Kultura	33.125.807,00	%10,27	35.683.297,00	%10,22	2.557.490,00	%7,72
Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	178.481,00	%0,06	182.238,00	%0,05	3.757,00	%2,10
Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	711.322,00	%0,22	733.913,00	%0,21	22.591,00	%3,18
Euskara	3.039.641,00	%0,94	3.108.109,00	%0,89	68.468,00	%2,25
Zahar etxeak	2.296.725,00	%0,71	1.527.337,00	%0,44	-769.388,00	-%33,50
Gazteria	2.676.371,00	%0,83	2.713.732,00	%0,78	37.361,00	%1,40
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	6.154.220,00	%1,91	5.163.745,00	%1,48	-990.475,00	-%16,09
Donostia Kirola (kirol ekintzak)	3.628.128,00	%1,13	4.038.525,00	%1,16	410.397,00	%11,31
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	13.708.529,00	%4,25	13.894.277,00	%3,98	185.748,00	%1,35
Donostia Turismo	4.399.546,00	%1,36	4.413.441,00	%1,26	13.895,00	%0,32
Donostiako Sustapena, S.A.	15.285.464,00	%4,74	16.740.502,00	%4,79	1.455.038,00	%9,52
Dbus	58.287.949,00	%18,08	71.709.392,00	%20,53	13.421.443,00	%23,03
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.507.543,00	%0,47	1.668.604,00	%0,48	161.061,00	%10,68
Proiektu eta obrak	10.028.373,00	%3,11	6.614.354,00	%1,89	-3.414.019,00	-%34,04
Ekialdeko distritua	455.153,00	%0,14	505.426,00	%0,14	50.273,00	%11,05
Giza baliabideak	3.827.737,00	%1,19	3.595.235,00	%1,03	-232.502,00	-%6,07
Herritarren parte hartzea	3.571.996,00	%1,11	4.615.991,00	%1,32	1.043.995,00	%29,23
Kudeaketa ekonomikoa	5.103.170,00	%1,58	11.432.114,00	%3,27	6.328.944,00	%124,02
GUZTIRA	322.394.712,00	%100,00	349.256.722,00	%100,00	26.862.010,00	%8,33
AURREKONTU OSOAREN GAINEKO %	%66,51		%67,49			

UDAL AURREKONTUA BAINO IGOERA HANDIAGOA	Mugikortasun bertikala	%220,63
	Kudeaketa ekonomikoa	%124,02
	Herritarren parte hartzea	%29,23
	Dbus	%23,03
	Adin txikikoen prebentzioa eta familia	%14,50
	Osasun publikoa eta animalien ongizatea	%13,04
	Donostia Kirola (kirol ekintzak)	%11,31
	Osasun sustapena	%11,16
	Ekialdeko distritua	%11,05
	Apartamentu tutelatuak	%10,82
	Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	%10,68
	Gizarte zerbitzuen zentroak	%10,34
	Donostiako Sustapena, S.A.	%9,52
	Hirigintza	%9,03
	Adineko pertsonen sustapena	%8,08
	Donostia Kultura	%7,72
	Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza	%7,44
	Donostiako etxegintza enpresa erakunde publikoa	%7,32
UDAL AURREKONTUA BAINO IGOERA TXIKIAGOA	Zaharren egoitzak	%6,32
	Udaltzaingoa	%5,80
	Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	%5,60
	Gizarteratzea	%5,30
	Gizarte abegi etxea	%5,10
	Hondartzak	%4,88
	Kultur aniztasuna	%4,31
	Heziketarako programak	%3,72
	Giza eskubideak	%3,26
	Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	%3,18
	Donostia Lagunkoia	%2,30
	Euskara	%2,25
	Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	%2,10
	Gazteria	%1,40
	Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	%1,35
	Parke eta lorategiak	%1,03
	Udalaren musika eta dantza eskola	%1,03
	Berdintasuna	%0,93
	Etxez etxeko laguntza	%0,52
	Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	%0,49
Donostia Turismo	%0,32	
JAITSIERA eta/edo BERDINA	Gizarte larrialdietarako laguntzak	%0,00
	Herri-argiteria	-%1,66
	Hiri mugikortasuna	-%3,54
	Giza baliabideak	-%6,07
	Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	-%16,09
	Bide publikoak	-%21,30
	Zahar etxeak	-%33,50
	Proiektu eta obrak	-%34,04

Oharra: Ehunekoak dagokion aurrekontu programaren gastu oroaren igoerari edo jaitsierari buruzkoak dira.

5.1. OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK

9 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Udaltzaingoa.
- Mugikortasun bertikala.
- Hiri mugikortasuna.
- Hirigintza.
- Donostiako Etxegintza Erakunde Publikoa
- Bide publikoak.
- Herri argiteria.
- Parke eta lorategiak.
- Hondartzak.

5.1.1. UDALTZAINGOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Udaltzaingoa programa **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan 30.381.587 €-ko zuzkidura du (2024an 28.717.029 €), hau da, udal **aurrekontuen % 5,93** hartzen du. Beraz, **+% 5,80ko** igoera izan du programa honek.

UDALTZAINGOA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	27.020.420,00	28.412.497,00	1.392.077,00	%5,15
2. kapitulua	1.627.567,00	1.665.090,00	37.523,00	%2,31
6. kapitulua	69.042,00	304.000,00	234.958,00	%340,31
TOTAL	28.717.029,00	30.381.587,00	1.664.558,00	%5,80

Iaz bezala, **1. kapitulua** da, Pertsonal gastuak, programan ehuneko handiena hartzen duen gastua, eta bertan dago sartuta **indarkeria matxistaren biktimak artatzeko unitateko agente taldea (2 agente)**. Kapitulu hau +% 5,15 igo da bi arrazoiengatik: alde batetik, Udalean aurreikusitako soldata igoera orokorragatik (% 2,5), eta, bestetik, lanpostuen balorazio sorta baten emaitzagatik.

2. kapitulari dagokionez, zenbatekoa ia berbera da. **6. kapituluak** izan du igoerarik handiena (+% 340,31) aurreikusitako inbertsio batzuei esker:

- Egiako polizia etxea: 125.000 €
- **Indarkeria matxistaren biktimak artatzeko gunea: 75.000 €**. Oso interesgarria da indarkeria mota horien aurreko arreta hobetzeko ikuspuntutik.
- Makineria eta tresnak: 54.000 €.
- Klimatizazioa: 50.000 €

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Aurten, IMEBAZrako irizpide berberari jarraiki, aintzat hartu da **indarkeria matxistaren biktimak artatzen dituzten bi udaltzainen** kostua (137.154 €) gastu eraldatzaile gisa.

Gainera, zerbitzu hori hobetzeko, 2025ean partida bat esleitu da 6. kapituluari indarkeria matxistaren biktimak artatzeko gunea egokitzeko, guztira 75.000 €. Horrek guztiak ekarri **du gastu eraldatzailea +% 7.266 igotzea** 2024koarekin alderatuta.

Nolanahi ere, indarkeria matxistaren aurkako zerbitzu espezifiko hori indartzen jarraitzeko asmoz, **udaltzaingoaren organigraman unitate hori formalizatzea eta ikusaraztea** gomendatzen dugu.

UDALTZAINGOA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	0,00	137.154,00	137.154,00	
2. kapitulua	2.880,00	0,00	-2.880,00	-%100,00
6. kapitulua	0,00	75.000,00	75.000,00	
GUZTIRA	2.880,00	212.154,00	209.274,00	%7266,46

2025ean berdintasunaren arloan ezarritako prestakuntzari dagokionez, gainerako departamentuetarako ezarritako irizpide berberari jarraitu zaio, eta arlo horretako prestakuntzarako partida global batean sartu da. Zenbateko osoa txosten honetan adierazten da.

Azkenik, emakumeentzako uniformeak egokitzeko, ekitaldi honetan emakumeen patronajeak eta modeloak sartuko dira udaltzaingoaren uniformeetan, baina horretarako ez da zenbateko espezifikorik identifikatzen.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko Unitatea indartzen jarraitzea, giza baliabide gehiago jarritz eta prestakuntza saio gehiago eginez, EAEko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko hirugarren akordioaren** tokiko inplementazioa ziurtatzeko eta betetzeko xedearekin.

5.1.2. MUGIKORTASUN BERTIKALA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Mugikortasun bertikala programa **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **871.944 €-ko** zuzkidura du (2024an, 271.944 €). Beraz, **udal aurrekontuen % 0,17 hartzen du** (2024an, % 0,06). Ondorioz, +% 220,6 igo da programa hau.

Programa hau osorik biltzen da Inbertsioetan, 6. kapituluan, eta, beraz, haren bilakaera esparru horretan hartzen diren erabakiek baldintzatuta dago guztiz. Horrexegatik, urteko eboluzioak gorabehera handiak izan ohi ditu, gorantz zein beherantz.

Zuzkidura osoa bideratzen da hiri barnean igogailuak egitera, irisgarritasuna hobetzeko.

MUGIKORTASUN BERTIKALA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
6. kapitulua	271.944,00	871.944,00	600.000,00	%220,63
TOTAL	271.944,00	871.944,00	600.000,00	%220,63

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berariazko partidarik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Programa honetako **inbertsioak** garrantzizkoak dira kontziliazioa eta erantzukidetasuna hobetzen laguntzen dutelako (mugikortasuna eta irisgarritasuna). Horrexegatik gomendatzen dugu **hautapen irizpideetan** genero irizpide berberak sartzea ikuspegi interseksional batetik: sexua, adina, errenta, puntu kritikoak, etab.

5.1.3. HIRI MUGIKORTASUNA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hiri Mugikortasuna programa **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **11.645.981 €-ko** zuzkidura du (2024an 12.072.981 €), hau da, **udal aurrekontuen % 2,25 hartzen du** (2024an % 2,49). Beraz, **-427.000 €-ko** jaitsiera izan du programa honek (**-% 3,54**).

HIRI MUGIKORTASUNA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	7.515.271,00	7.900.820,00	385.549,00	%5,13
2. kapitulua	2.522.620,00	2.727.410,00	204.790,00	%8,12
4. kapitulua	9.240,00	9.240,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	2.025.850,00	1.008.511,00	-1.017.339,00	-%50,22
GUZTIRA	12.072.981,00	11.645.981,00	-427.000,00	-%3,54

Programaren aldaketa nagusia **6. kapitulu**an eman da (**-% 50,22**), alde batetik, 2024an esleitutako inbertsioetako batzuk amaitu direlako (Marrutxipiko lotura-proiektua eta Kontxako bidegorria) eta, bestetik, 2025ean beste inbertsio batzuetan egin beharreko inbertsioari egokitzea (Kursaal-Boulevard berrantolaketa). Hauexek dira 2025erako aurreikusitako inbertsioak:

HIRI MUGIKORTASUNA		1.008.511,00
623.03	Instalazio semaforikoak	341.846,00
622.01.01	Biziklontentzako aparkalekua Benta Berri	93.000,00
601.07	Kursaal-Boulevard berrantolatzea	140.000,00
601.06	Jai Alaiko tunela	283.665,00
601.01	Bide-segurtasuneko jarduketak	150.000,00

1. eta 2. kapituluak % 5,13 eta % 8,12 igo dira, hurrenez hurren. Hona hemen igoera horien arrazoiak:

- **1. kapitulua**, soldata igoera orokorra ez ezik (+% 2,5) 2025erako plantillan beste 6 mugikortasun agente kontratatzea aurreikusi da.
- **2. kapitulua** funtsean 227.13.05 Isuri gutxiko eremuetako instalazioak mantentzea partidaren igoeraren (2025ean 228.833 € / 2024an 80.000 €) eta partida berri baten (202.01 Aparkaleku seguruen sarea kudeatzeko sistemaren alokairua) sorreraren emaitza da. Azken horrek 33.012 €-ko zuzkidura du 2024an jada baziren beste partida batzuetako zenbateko txikiagoak doitu ondoren.

4. kapituluari dagokionez, 2024ko zuzkidura berberari eutsi zaio.

● **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2025eko aurrekontuari begira, hauxe da identifikatutako gastu eraldatzailea:

- **Plan Bertikalaren genero azterketa (15.000 €)**. Esleipen berria 2024ko urtearekin alderatuta, 226.09 Azterlan eta lan teknikoak partidan sartua.
- Berdintasunarekin lotutako jarduerak **mugikortasunaren astean (1.000 €)**. 2024an 500 €-koa izan zen zuzkidura hori.

Beraz, 2025erako identifikatutako **gastu eraldatzailea handitu egin da, gastu arruntarekiko, +15.500 €-an**, baina, **inbertsioan apaldu** denez (Egiako plataforma goratuari dagozkion -40.000 € 2024n), **-24.500 €-ko jaitsiera garbia** izan da (**-% 60,49**).

Gastu espezifiko horretaz gain, kualitatiboki modu positiboan nabarmendu behar dugu Berdintasuna departamentuaren parte hartzea "Oinezkoen mugikortasuna hobetzeko Estrategia" eta "Desgaitasuna duten pertsonen mugikortasuna hobetzeko Estrategia" proiektuetan. Prozesu horietan ezinbestekoa da genero ikuspegiaren txertaketa izaera intersektionalarekin, zuzeneko eragina baitute gure hirian bizi eta batetik bestera lekualdatzen diren pertsonen eguneroko bizitzan.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Mugikortasun arloko zuzendaritzak burutu beharreko proiektuetan genero ikuspegia txertatzen eta ziurtatzen jarraitzeko, **departamentuen arteko (berdintasuna / mugikortasuna) lan batzordeari** eusteko eta hura indartzeko gomendioa egiten dugu berriz ere.

5.1.4. HIRIGINTZA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hirigintza programa **Etxebizitza eta hirigintza** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **16.939.238 €-ko** zuzkidura du (2024an 15.535.925 €), hau da, **udal aurrekontuen % 3,27** hartzen du (2024an % 3,20). Beraz, **+ 1.403.313 €-ko** igoera izan du programa honek (**+ % 9,03**).

HIRIGINTZA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.446.940,00	4.602.426,00	155.486,00	%3,50
2. kapitulua	286.301,00	212.947,00	-73.354,00	-%25,62
6. kapitulua	5.376.892,00	12.123.865,00	6.746.973,00	%125,48
7. kapitulua	5.425.792,00	0,00	-5.425.792,00	-%100,00
GUZTIRA	15.535.925,00	16.939.238,00	1.403.313,00	%9,03

2024an bezala, zuzkidura aldea batez ere **6. kapituluaren** igoeran oinarritzen da (**+% 125,48**), izan ere, gora egin du inbertsioen zenbateko globalak 2025. urterako. Eta **7. kapitulari dagokionez (-% 100)**, 2024an gauzatu dira Illarrako Hitzarmen Batzarretarako ekarpenen zati bat, beste zatia 6. kapitulura bideratu delarik.

6. kapitulari dagokionez, hona hemen esleitutako partiden xehetasuna:

HIRIGINTZA	12.123.865,00
600.01 Erabilera orokorrerako inbertsioa lurretan	500.667,00
601.02 Hiri Lorategia Urbanizazioa	7.541.632,00
600.01 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta urbanizazioa	118.506,00
601.05 Illarra, Hitzarmen-batzarretarako ekarpenak	119.128,00
601.06 Infernua, Hitzarmen-batzarretarako ekarpenak	1.400.000,00
601.07 Eskuzaitzeta Urbanizazioa	813.932,00
643.01 Hiri-antolamenduko plan orokorra	650.000,00
643.02 Genero inpaktua plangintzan	15.000,00
643.03 Ikerketak, azterlanak eta proiektuak	200.000,00
643.04 Antolatzeko eta gauzatzeko lanak	750.000,00
643.05 Genero inpaktua ordenantzan	15.000,00

Genero ikuspegitik, nabarmentzekoak dira **plangintzan genero eraginaren ebaluazioa egiteko aurreikusitako zenbatekoa (15.000 €) eta urbanizazio ordenantzaren genero eragina neurtzeko aurreikusitakoa (15.000 €)**. Lehenengo kasuan, 2026an zenbateko horri eusteko konpromisoa dago.

Berriz ere azpimarratuko dugu gomendagarria dela genero ikuspegia inbertsio partida guztietan txertatzea, **nola diseinuan hala gauzatzean.**

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2025erako **gastu eraldatzailea % 100ean handitzea** aurreikusten da, 15.000 €-ko zuzkidura ez baizik eta 30.000 €-ko zuzkidura izatea. Zenbateko horiek, lehen ere azaldu dugun bezala, **6. kapitulua** dute jomuga, jarraian zehazten denez:

- Hirigintza plangintzan genero eragina egiaztatzeko txostenak (15.000 €). Iaz esleitutakoari eusten zaio 643.02 partidaren baitan.
- Genero neurriak txertatzen dituen urbanizazio ordenantza bat lantzeko laguntza (15.000 €) 643.05 partidaren baitan.

HIRIGINTZA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
6. kapitulua	15.000,00	30.000,00	15.000,00	0,0%
GUZTIRA	15.000,00	30.000,00	15.000,00	%100,00

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Donostiako **Hiri Antolamenduko Plan Orokorren** (HAPO) berrikuspenean eta erredakzioan egiten diren urrats guztietan Berdintasun arloaren parte hartzeari eustea eta ziurtatzea.
- ✓ **Amara kaleko etxebizitza berrien diseinuaren lizitazioan Emakumeen Etxe** berriaren premiei erantzuteko gune egoki eta nahikoa gaitzen dela ziurtatzea, Emakumeen Etxea Elkartek eta Berdintasun Departamentuak landutako “Emakumeen Etxe berriko premiak” txostenean ezarritakoaren arabera, eta Hirigintzari helaraztea.

5.1.5. DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Donostiako Etxegintza enpresa publikoa Etxebizitza eta hirigintza gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **22.465.300 €-ko** zuzkidura du (2024an 20.932.252 €), hau da, **udal aurrekontuen % 4,34** hartzen du (2024an % 4,32). Beraz, **+ 1.533.048 €-ko** igoera izan du programa honek **(+% 7,32)**.

ETXEGINTZA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.388.000,00	2.482.000,00	94.000,00	%3,94
2. kapitulua	4.000.852,00	5.000.000,00	999.148,00	%24,97
3. kapitulua	2.203.000,00	2.384.000,00	181.000,00	%8,22
6. kapitulua	6.583.400,00	6.825.000,00	241.600,00	%3,67
9. kapitulua	5.757.000,00	5.774.300,00	17.300,00	%0,30
GUZTIRA	20.932.252,00	22.465.300,00	1.533.048,00	%7,32

2. kapitulua da igoera handiena izan duena, eta batez ere etxebizitzak mantentzeko gastuetan oinarritu da igoera hori. **3. kapitulari** dagokionez, 2024rako esperotako aurreikuspenen arabera doitu da.

Udalak 7.834.000 €-ko **ekarpena** egingo du 2025ean, 4.086.000 € gastu arruntean eta 3.748.000 € kapital gastuan. 2024an 7.156.000 €-ko ekarpena egin zuen: 599.000 € gastu arruntean eta 3.557.000 € kapital gastuan.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berriazko partidarik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Etxebizitzaren esleipenean genero irizpideen aplikazioaren eragina neurtzen duten **adierazleak identifikatzea eta horien jarraipena egitea.**
- ✓ Eutsi egiten diogu iazko gomendioari, hau da, Etxegintzari emandako eskumenei erantzuteko ekintza ildoak/neurriak/konpromisoak identifikatu behar dira EAEn emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko hirugarren akordioaren** bidez.
- ✓ Erakundearen **barneko berdintasunerako plan** bat lantzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren Legearen 43. artikuluan ezarritakoari erantzuteko.

5.1.6. BIDE PUBLIKOAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Bide publikoak programa **Etxebizitza eta hirigintza** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **3.052.760 €-ko** zuzkidura du (2024an 3.679.121 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,59** hartzen du (2024an % 0,80). Beraz, **-626.361 €-ko** jaitsiera izan du programa honek (**-% 17,02**).

BIDE PUBLIKOAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	723.954,00	825.638,00	101.684,00	%14,05
2. kapitulua	1.180.167,00	1.246.991,00	66.824,00	%5,66
6. kapitulua	1.775.000,00	980.131,00	-794.869,00	-%44,78
GUZTIRA	3.679.121,00	3.052.760,00	-626.361,00	-%17,02

Aldaketa esanguratsuenak kapitulu hauetan gertatu dira:

- **1. kapituluari** dagokionez, +% 14,05ekoa izan da igoera, % 2,5eko soldata igoera orokorraren eta obra publikoko ingeniari/teknikari postu berriaren kontratazioaren ondorioz.
- Aitzitik, -% 44,78ko jaitsiera gertatu da **6. kapituluan**, eta hauxe da aurreikusitako inbertsioen xehetasuna:

BIDE PUBLIKOAK		980.131,00
601.04	Munto-Guarnizo egokitu	50.000,00
601.03	Irisgarritasuna eta espazioa publikoak	279.761,00
601.02	Haur parkeak (berrikuntzak)	375.000,00
601.01	Barandak, hiri-altzariak eta seinalitika berritzea eta pintatzea	275.370,00

2. kapituluari dagokionez, +% 5,7ko igoera izan du, funtsean Jolas eremuak eta Haur parkeak mantentzeko partidaren igoerari (+75.000 €) eta kapitulu honetako beste partida batzuetan izandako murrizketa txikiei esker.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berariazko partidarik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berretsi egiten da aurrekontu programa honek bideratzen dituen proiektuen kontratazioan eta diseinuan **genero irizpideak implementatzeko eta horien jarraipen egiteko beharra**.
- ✓ Programa hau espazio publikoa mantentzeko, konpontzeko eta diseinua gauzatzeko programa sorta batean biltzen denez, egokia iruditzen zaigu **berdintasunarekin eta tipologia honetako programa guztiekin departamentuen arteko lan** bat sortzea, horietan guztietan genero ikuspegia zeharka txertatzeko.

5.1.7. HERRI ARGITERIA

- PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Herri argiteria programa Komunitate Ongizatea gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **5.484.500 €-ko** zuzkidura du (2024an 5.577.348 €), hau da, **udal aurrekontuen % 1,06** hartzen du (2024an % 1,15). Beraz, **-92.848 €-ko** jaitsiera izan du programa honek (**-% 1,66**).

HERRI ARGITERIA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	5.517.348,00	5.484.500,00	-32.848,00	-%0,60
6. kapitulua	60.000,00	0,00	-60.000,00	-%100,00
GUZTIRA	5.577.348,00	5.484.500,00	-92.848,00	-%1,66

Jaitsiera batez ere **6. kapituluan** oinarritzen da, desagertu egin baita Energia eraginkortasuna hobetzeko neurrietara bideratutako inbertsioa (-60.000 €).

- PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berriazko partidarik identifikatu.

- GOMENDIOAK**

- ✓ Programa hau espazio publikoa mantentzeko, konpontzeko eta diseinua gauzatzeko programa sorta batean biltzen denez, egokia iruditzen zaigu **berdintasunarekin eta tipologia honetako programa guztiekin departamentuen arteko lan** bat sortzea, horietan guztietan genero ikuspegia zeharka txertatzeko.

5.1.8. PARKE ETA LORATEGIAK

- PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Parke eta lorategiak programa **Ingurumena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **9.075.767 €-ko** zuzkidura du (2024an 8.983.256 €), hau da, **udal aurrekontuen % 1,75** hartzen du (2024an % 1,85). Beraz, **+92.511 €-ko** igoera izan du programa honek (**+% 1,03**).

PARKE ETA LORATEGIA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	738.516,00	754.177,00	15.661,00	%2,12
2. kapitulua	6.854.740,00	7.321.591,00	466.851,00	%6,81
6. kapitulua	1.390.000,00	999.999,00	-390.001,00	-%28,06
GUZTIRA	8.983.256,00	9.075.767,00	92.511,00	%1,03

Programa honetan izandako aldaketa batez ere 2. eta 6. kapituluetan izandako aldaketen emaitza da:

- **2. kapituluaren** kasuan, igoera horrek osorik du jatorria berdeguneak mantentzeko 227.14 partidaren igoeran.
- **6. kapituluan**, batez ere zuhaitzetan, txorkoetan eta berdeguneetan bideratu beharreko jardueretarako inbertsioen zenbatekoa murriztu da (-381.327 €). Ondoko taulan irudikatzen da 6. kapituluaren xehetasuna:

PARKE ETA LORATEGIA		999.999,00
623.02	Ureztatze sisteman hobekuntzak	131.326,00
609.01	Mintegia handitzea	100.000,00
601.01	Jarduerak zuhaitzetan, txorkoetan eta berdeguneetan	768.673,00

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berariazko partidarik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Programa hau espazio publikoa mantentzeko, konpontzeko eta diseinua gauzatzeko programa sorta batean biltzen denez, egokia iruditzen zaigu **berdintasunarekin eta tipologia honetako programa guztiekin departamentuen arteko lan** bat sortzea, horietan guztietan genero ikuspegia zeharka txertatzeko.

5.1.9. HONDARTZAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hondartzak aurrekontu programa **Ingurumena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **3.613.012 €-ko** zuzkidura du (2024an 3.445.011 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,70** hartzen du (2024an % 0,71). Beraz, **+168.001 €-ko** igoera izan du programa honek (**+% 4,88**).

HONDARTZAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	117.077,00	119.802,00	2.725,00	%2,33
2. kapitulua	3.177.934,00	3.443.210,00	265.276,00	%8,35
6. kapitulua	150.000,00	50.000,00	-100.000,00	-%66,67
GUZTIRA	3.445.011,00	3.613.012,00	168.001,00	+%4,88

Programa honen eboluzioa batez ere 2. eta 6. kapituluetan izandako aldaketen emaitza da:

- 2. kapitulari dagokionez, igoera batez ere 227.99.04 Salbamendua eta Sorospena partidaren igoeraren (+300.000 €) eta Ondarretako hondartzatik harriak ateratzea partidaren jaitsieraren (-78.544 €) eta beste partida batzuetan egindako aldaketa txiki batzuen emaitza da.
- 6. kapitulari dagokionez, murriztu egin da partida bakarraren (Makineria, instalazioak eta tresnak) zuzkidura -100.000 €-an.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berariazko partidarik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun departamentuarekin koordinatuta **hondartzako zerbitzuei lotutako langileen prestakuntza** indartzen duten genero klausulen txertaketa gaitzea, **indarkeria matxista prebenitzeko eta arreta emateko**.

5.2. BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUERAK

14 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Berdintasuna.
- Garapenerako lankidetzak eta hezkuntza.
- Donostia Lagunkoia.

GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA

- Gizarte zerbitzuen zentroak.
- Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa.
- Apartamentu tutelatuak.
- Gizarte abegi etxea.
- Gizarteratzea.
- Adin txikikoen prebentzioa eta familia.
- Adineko pertsonen sustapena.
- Adineko pertsonentzako egoitzak
- Etxez etxeko laguntza.
- Gizarte larrialdietarako laguntzak.
- Zaharren etxea (programa hori atal honetan jaso dugu *gizarte ekintzaren zuzendaritzapean* dagoelako. Halere, aurrekontuari dagokionez, Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena eta Kultura arloko gastu politikan sailkatzen da).

5.2.1. BERDINTASUNA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Berdintasuna programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **1.088.726 €-ko** zuzkidura du (2024an 1.078.736 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,21** hartzen du (2024an % 0,22). Beraz, **+9.990 €-ko** igoera izan du programa honek (**+% 0,93**).

BERDINTASUNA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	471.540,00	482.894,00	11.354,00	%2,41
2. kapitulua	332.971,00	327.607,00	-5.364,00	-%1,61
4. kapitulua	224.225,00	228.225,00	4.000,00	%1,78
6. kapitulua	50.000,00	50.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	1.078.736,00	1.088.726,00	9.990,00	%0,93

Aldaketaren zenbateko globala 1., 2. eta 4. kapituluetan izandako aldaketen baturaren emaitza da. **6. kapituluak** 2023ko eta 2024ko zuzkidura berberari eusten dio, zehazki **622.01.01 Emakumeen Etxearen kokapen berria** partidan (50.000 €), urte horietan ez baita gauzatu.

1. kapituluari dagokionez (+% 2,41), aldaketa Udalean aurreikusitako % 2,50eko soldata igoera orokorraren emaitza da.

2. kapitulari dagokionez, **2025erako egingo den aldaketa** aipatu behar da, zehazki **aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko prozesuko laguntza teknikora bideratutako** aurrekontu zuzkidurari dagokionez. Zehazki, laguntza hori Kudeaketa ekonomikoa programaren zuzkidurara bideratu da (*ikus xehetasunak "Kudeaketa ekonomikoa" aurrekontu programan*).

Beraz, oro har -5.364 €-ko jaitsiera dagoen arren (-% 1,61) **berdintasun arloko gastu garbietan +9.636 €-ko igoera** gertatu da 2024ko urtearekin alderatuta indarkeria sexistaren aurkako zenbateko orokorra kopuru horretan emendatu delako eta, aldi berean, beste aurrekontu programa batean aipatutako laguntzari eutsi zaiolako.

Hona hemen 2. kapituluan izandako aldaketen eta partida berri baten sorreraren xehetasunak:

- **Aurrekontu partida berri bat** sortu da, **227.04 Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak, 67.636 €-ko** zuzkidurarekin (**lizitazio prozesu bati lotuta**), **226.99.01 Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak** partidaren esleitutako **aurrekontu zuzkiduraren zati bat xurgatu duena (-58.000 €)**. **Indarkeria sexistaren garira** bideratutako zenbateko globala **+9.636 €-an handitu da** 2024koaren aldean (**+% 9,45**).
- **226.99.03** Emakumeen ahalduntzea **partidako zuzkiduraren aldaketa** (-15.000 €).
- **226.99.07 "V. Berdintasun Planaren lanketa" partidaren izena aldatzea** (2024an, III. Berdintasun Planaren inplementazioa eta sistematizazioa), 2025eko helburura egokitzeko. **Zuzkidura berberari eusten dio (15.000 €)**.

2024ko abenduan iraungiko da gaur egungo Donostiako emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana. Beraz, 2025ean V. Plana lantzeko prozesuari heldu behar zaio, Plan horren bidez definituko baita hiriaren estrategia orokorra berdintasunaren arloan.

2. kapituluko gainerako partidek 2024ko aurrekontu zuzkidura berdinari eusten diote.

Aurreko ekitaldietan bezala, 2. kapituluaren barruan, **226.99 Bestelako gastuak** partidak, zehazki **227.04 indarkeria sexistaren aurkako ekimenetarako** sortutakoarekin batera (aurreko urteetan **226.99.01 Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak** partidaren bildua) 2. kapituluaren gastu osoaren % 82 hartzen dute. Zuzkidura horien guztizkoaren bidez garatzen da berdintasun programaren jardueraren zati handi bat.

Hona hemen 2025erako xehetasunak eta 2024ko urtearekiko konparazioa:

Partida	Gastuen deskribapena	2025	2024	Aldea
226.99	Bestelako gastuak	200.790 €	273.790 €	-73.000 €
226.99.01	Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak	44.000 €	102.000 €	-58.000 €
226.99.02	Ikerketa lanak eta prestakuntza	3.000 €	3.000 €	0 €
226.99.03	Emakumeen ahalduntzea	111.265 €	111.265 €	0 €
226.99.05	Erantzunkidetasuna eta zaintzak lantzeko ekintzak	6.000 €	6.000 €	0 €
226.99.07	III. Berdintasun Plana: inplementatu eta sistematizatzeara	0 €	15.000 €	-15.000 €
226.99.08	Pobreziaren eta prekarietatearen feminizazioaren aurkako estrategia	26.500 €	26.500 €	0 €
226.99.11	Sexuak eta aniztasuna hezteko programa, eskola-umeei eta institutuei zuzendua	10.025 €	10.025 €	0 €
227.04	Indarkeria sexistaren aurkako kanpainak / Campañas contra la violencia sexista	67.636 €		67.636 €
	GUZTIRA	268.426 €	273.790 €	-5.364 €

4. kapituluari dagokionez, +4.000 €-an handitu da (+% 1,78). Eguneratu egin da **481.03** Guraso bakarreko familien kontziliaio-kanguraje programaren aparteko dirulaguntza **partidaren** izena, eta orain “Arrats Elkartea, Txiki Txokoko Proiektua” izena du, baina aurrekontu zuzkidura berberari eusten dio (74.225 €). Laguntza lerro hori bazterkeria arriskuan dauden emakumeei zuzenduta dago, batez ere emakume migratzaileei, zaurgarritasun egoeran bizi direnei, eta horietako asko guraso bakarreko familiak dira, adin txikiko seme-alabekin.

Programa honetatik gizarte bizitzaren esparru guztietarako sarbidea ahalbidetzeko zerbitzu osagarriak eta laguntza sozialak eskaintzen dira: laguntza emozionala eta baliabideak adin txikiko seme-alabei arreta emateko gizarteratzeko/laneratzeko jarduerak garatzen dituzten bitartean, eta prestakuntza bizi kalitatea hobetzeko.

4. kapituluko beste bi aurrekontu partidei eusten zaie, **481.02 Dirulaguntza nominatiboa Emakumeen etxeko elkarteari partida + 4.000 €-an handitu delarik.**

Partida	Gastuen deskribapena	2.025	2024	Aldea
481.01	Irabazi asmorik gabeko erakundeetarako dirulaguntzak	82.000 €	82.000 €	0 €
481.02	Dirulaguntza nominatiboa Emakumeen etxeko elkarteari	72.000 €	68.000 €	4.000 €
481.03	Arrats elkartea, TxikiTxoko proiektua	74.225 €	74.225 €	0 €
GUZTIRA		146.225 €	68.000 €	4.000 €

● **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honi esleitutako zenbatekoaren guztizkoa gastu eraldatzailea da, programaren beraren jatorria eta xedea baita. **Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik** eratorritako dirulaguntzari dagokionez, esan behar dugu zaila dela Donostiari legokiokeen finantzaketaren zenbateko zehatza ezagutzea, 2022tik aurrera Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren barruan sartu baitzen 2022-2026 aldirako itundutako kupoaren metodologian oinarrituta. Beraz, iazko zenbatekoari eusten diogu (165.460,76 €) 2025eko uztailetik 2026ko uztailera arteko neurrietarako. Berretsi egiten da **dirulaguntza horren guztizkoa Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloen gastu arruntean biltzeko gomendioa.**

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea emakume askoren eta askotarikoen **topaketarako, prestakuntzarako, pentsamendurako eta ekintzarako** gune bat da, mugimendu feministaren eta Donostiako Udaleko Berdintasun arloaren arteko kudeaketa eredu misto edo partekatatu baten bidez antolatzen da.

Donostiako Udalak **2025ean 286.419,06 €-ko ekarpen ekonomikoa** egingo dio Emakumeen Etxeari. 2024koarekin alderatuta, zenbatekoa +% 4,42 handitu da (+ 12.113,40 €) hainbat faktoreren ondorioz: emakumeen etxea elkartearekiko hitzarmenaren eguneraketaren eta zuzkidura batzuen (arreta psikologikoa, aholkularitza juridikoa, indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeen ahalduzko taldea eta etxeko langileen aholkularitza juridikoa) berrikuspenaren ondorioz.

Aurreko txostenetan azaldu bezala, behar-beharrezkoa da **Emakumeen Etxerako gune berri bat, instalazio egokiak izango dituen** behar dituen eta Donostiako hiriak merezi dituen zerbitzuak eta jarduerak hartu ahal izateko. Eskaera hori berretsita dago Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko urriaren 20an onartutako **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planean**, bertan baitago jasota 4. proiektua-emaitza: **Emakumeen Etxe handiago, dibertsioago eta koordinatuago bat.**

DONOSTIAKO UDALAK EMAKUMEEN ETXERA EGINDAKO EKARPENA (2025)	
1. Hitzarmena Emakumeen Etxea Elkartearekin	
Espazioaren dinamizazioa arratsaldeko ordutegian	72.000,00 €
2. Langileak	
Berdintasun teknikari bat lanaldi osoan	59.813,29 €
3. Ikastaroak, ahalduntze-taldeak eta zerbitzuak	
Emakumeentzako banakako arreta psikologikoa eta taldeko psikoterapia-zerbitzua	20.404,70 €
Aholkularitza juridikoko zerbitzua	11.855,94 €
Aniztasun funtzionala duten emakumeentzako ahalduntze-taldea	9.679,03 €
Azterriko emakumeentzako ikasketak baliozkotzeko zerbitzua	7.259,27 €
Sexu-informazioko eta indarkeria matxisten prebentzioko zerbitzua gazteentzat eta neska gazteen ahalduntze-taldea	15.772,35 €
Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeen ahalduntze-taldea	10.483,14 €
Etxeko langileen eta kontratatzaileen aholkularitza juridikoko zerbitzua eta ahalduntze taldea	13.135,14 €
Literatura feministako taldeak: euskaraz eta gaztelaniaz	4.800,00 €
4. Eraikuntzaren mantenua	
Gastu arrunta (telefonoa, garbiketa, fotokopia, elektrizitatea, komunitateko gastuak, konponketa txikiak)	48.000,00 €
5. Komunikazioa	
Argazkiak eta bideoak	4.102,20 €
Hileroko programak: diseinua, maketazioa eta inprenta	3.000,00 €
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta maketazioa	4.114,00 €
Memoria eta programak inprimatzea	2.000,00 €
GUZTIRA	286.419,06 €

- GOMENDIOAK**

- ✓ **Departamentuko langile baliabideak egokitzea, lantaldean beste bi lagun gehiago bilduz (administrazioa eta berdintasun teknikaria), alde batetik, Emakumeen eta gizonen berdintasun legetik eta EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako legetik eratorritako betebeharrak eta eskumenak behar bezala bete ahal izateko, eta bestetik, Emakumeen Etxean kalitatezko arreta eskaini ahal izateko.**
- ✓ **Emakumeen Etxeari dagokionez, behar-beharrezkoa da instalazio berriez hornitzea, prozesu parte hartzaile baten bidez diseinatuak, non Emakumeen Etxea Elkarteaz gain, hiriko beste elkarte feminista edo beste emakume elkarte batzuek parte hartuko duten.**
- ✓ **Berrito diogu behar-beharrezkoa dela gastu arruntaren zenbatekoa handitzea aurrekontuetan Estatu Ituneko finantzaketa espezifikoko azken zenbateko ezaguna finkatzeko, indarkeria matxistaren prebentzioa eta arrera hobetzeko xedearekin.**

5.2.2. LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Lankidetzeta eta garapenerako hezkuntza programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **2.515.208 €-ko** zuzkidura du (2024an 2.340.956 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,49** hartzen du (2024an % 0,48). Beraz, **+174.353 €-ko igoera izan** du programa honek (**+% 7,44**).

LANKIDETZA ETA GARAPENARAKO HEZKUNTZA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	306.147,00	322.571,00	16.424,00	%5,36
2. kapitulua	115.525,00	115.525,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	1.919.284,00	2.077.112,00	157.828,00	%8,22
TOTAL	2.340.956,00	2.515.208,00	174.252,00	%7,44

1. kapituluko igoera, alde batetik, Udalak aurreikusitako % 2,5eko soldata igoera orokorraren ondorioa da, eta bestetik, lanpostuen balorazio sorta baten emaitzaren ondorioa.

Aurreko urteetan bezala, **4. kapituluan** gertatzen da igoerarik handiena: +157.828 € (+% 8,22). Honela banatzen da igoera hori:

- +108.463 € gehiago lehia askeko lankidetzarako Dirulaguntza lerrorako (481.01 partida).
- +346.798 € gehiago lehia askeko EpTS Dirulaguntzetarako (481.02 partida).
- +2.567 € gehiago zuzeneko Dirulaguntzetarako (481.03 partida).

Genero ikuspegitik, positibotzat jotzen dugu lehia askeko lankidetzarako dirulaguntzetan izandako igoera, oinarrietan zeharka jasotzen baitira genero irizpideak, eta, beraz, osorik hartzen baita gastu eraldatzailetzat.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Aurreko urteetan bezala, gastu eraldatzailetzat identifikatu **da 481.01 partidan** sartutako **1.172.089 €-ko zenbatekoa**, **berdintasunerako klausulak aintzat hartzen dituzten dirulaguntzetara bideratua**, GKE onuradunek emakumeak programen erdigunean jar ditzaten, emakumeak baitira pobreziatik eratorritako egoerak gehien nozitzen dituztenak.

Aipatzekoa da programa horrek aspaldi samarretik txertatzen dituela Giza Garapen Iraunkorrerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Plan Gidariaren baitan genero ekitatea printzipio gidari gisa, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna zeharkako ildo gisa.

Beraz, 2024koarekin alderatuta, zuzkidura hau **% 10,20 igo da**.

LANKIDETZA ETA GARAPENARAKO HEZKUNTZA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	1.063.626,00	1.172.089,00	108.463,00	%10,20
GUZTIRA	1.063.626,00	1.172.089,00	108.463,00	%10,20

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Diruz lagundutako proiektuak, eraldatzeko gaitasun handiagoa dutenak, identifikatzea: eragin adierazleak (aldaketa emakumeen bizi baldintzetan).
- ✓ Zuzeneko dirulaguntza lerroetan genero klausulak txertatzea.

5.2.3. DONOSTIA LAGUNKOIA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Donostia Lagunkoia programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **101.758 €-ko** zuzkidura du (2024an 99.470 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,02** hartzen du (2024an bezala).

+2.880 €-ko igoera txikia (+% 2,30) izan du “Lkaleak laguntza teknikoa” barruan. Gainerako partidak 2024koak bezalakoak dira.

DONOSTIA LAGUNKOIA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	99.470,00	101.758,00	2.288,00	%2,30
GUZTIRA	99.470,00	101.758,00	2.288,00	%2,30

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berriazko partidarik identifikatu.

Berretsi egiten dugu aurreko ekitaldietan programa honen izaerari buruz adierazitakoa. Izan ere, kontuan izanik **sustatzen dituen proiektuen eta jardueren helburuak (hiriaren lagunkoitasuna hobetzea, adinekoen bizi kalitatea hobetzea eta, hedaduraz, Donostiako gizarte osoa hobetzea)**, Donostia Lagunkoia **genero ikuspegitik programa garrantzitsua da**. Eragin esanguratsua du **adinekoen artean, emakumeak nagusi direlarik**, eta gainera zuzeneko lotura du zaintzekin eta adineko pertsonen parte hartzearekin.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berretsi egiten dugu komenigarria dela **Koordinazio dinamika ahalbidetzea berdintasun arloarekin**, Donostia Lagunkoia proiektuan ekintza zuzeneko lerroak txertatzeko, ekintza/gastu eraldatzaile gisa definitzen direnak.

GIZARTE EKINTZA PROGRAMAK

Jarraian Gizarte Ekintza Zuzendaritzako programa guztiak aztertuko ditugu, eta guztien amaieran Zuzendaritzako gastu eraldatzailearen batuketa osoa jasotzen duen taula bat erantsi dugu.

5.2.4. GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte zerbitzuen zentroak programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **5.515.901 €-ko** zuzkidura du (2024an 4.998.949 €), hau da, **udal aurrekontuen % 1,07** hartzen du (2024an % 1,03). Beraz, 2025erako **+516.952 €-ko** igoera izan du programa honek (**+% 10,34**).

GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.441.152,00	4.602.642,00	161.490,00	%3,64
2. kapitulua	549.327,00	563.259,00	13.932,00	%2,54
4. kapitulua	8.470,00	350.000,00	341.530,00	%4032,23
GUZTIRA	4.998.949,00	5.515.901,00	516.952,00	%10,34

Funtsezko programa da udal Gizarte Ekintza politiketarako. Programa honek gizarte zerbitzuen zentroetako pertsonal gastua biltzen du, gizarte zerbitzu horietatik baitira euskal gizarte zerbitzuen sisteman sartzeko atak.

2025erako igoerarik esanguratsuen **6. kapituluan** gertatzen da, izan ere, 622.01.01 Antiguako GZZ handitzea partidaren zuzkidura +350.000 €-an handitu da.

1. kapitulari dagokionez, igoera, alde batetik, Udalak aurreikusitako % 2,5eko soldata igoera orokorraren ondorioa da, eta bestetik, lanpostuen balorazio sorta baten emaitzaren ondorioa.

2. kapituluaren igoerari dagokionez, hainbat partidatan izandako igoera eta jaitsiera sorta baten emaitza da. Horien artean nabarmentzen dugu herritarrei zuzeneko zerbitzua ematen dien bakarra, **227.04.01 Laguntzeko programan izandako +19.354 €-ko igoera.**

Kapitulu honetan izandako beste aldaketak instalazioetako mantentze lanekin, telefonoarekin eta abarrekin lotuta daude.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan ez da gastu eraldatzaileko partidarik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Berdintasun Departamentuarekin koordinatuta, indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko 2024an ezarritako ereduaren jarraipena egitea.**

5.2.5. GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **886.928 €-ko** zuzkidura du (2024an 839.867 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,17** hartzen du, 2024an bezala. Beraz, **+47.061 €-ko** igoera izan du programa honek (**+% 5,60**).

GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	521.419,00	568.480,00	47.061,00	%9,03
2. kapitulua	35.482,00	35.482,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	282.966,00	282.966,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	839.867,00	886.928,00	47.061,00	%5,60

Igoera hori funtsean **1. kapituluan** oinarritzen da arrazoi hauengatik: alde batetik, Udalak aurreikusitako % 2,5eko soldata igoera orokorragatik. Eta bestetik, 2025ean, Gizarte Ekintzako ekipamenduetako arduradun postuari atxikitako laguntzailearen kontratazioa aurreikusten da ekitaldi osoan (2024an bakarrik urte erdiko aurrekontua finkatu zen).

2. eta 4. kapituluek eutsi egiten diote beren aurrekontu zuzkidurari. 4. kapituluari dagokionez, **2024ko dirulaguntza lerro berberei eutsi zaie:**

- **Irabazi asmorik gabeko elkarteentzako dirulaguntza (481-01), 274.800 €.** Elkarte eta proiektu horiek **zuzeneko eragina dute zainketetan**, eta beraz, **garrantzi handia dute genero ikuspegitik**. Beraz, positibotzat jotzen da aurrekontuari eustea eta, nola ez, igotzea.
- Eta bestetik DYArri ematen zaion zuzeneko dirulaguntza, 8.166 €.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan ez dugu gastu eraldatzaileko partidarik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Gizarte Ekintza programen artean eta **berdintasuna eta indarkeria gaian koordinazio sistematika berrikusteko** gomendioa egiten dugu, proposatutako neurriak aplikatzen direla ziurtatzeko eta beste neurri berri batzuk lantzeko.

5.2.6. APARTAMENTU TUTELATUAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Apartamentu tutelatuak programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **2.500.524 €-ko** zuzkidura du (2024an 2.256.313 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,48** hartzen du (2024an % 0,47). Beraz, +244.211 €-ko igoera izan du programa honek (+% 10,82).

APARTAMENTU TUTELATUAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	188.655,00	208.045,00	19.390,00	%10,28
2. kapitulua	2.031.578,00	2.256.399,00	224.821,00	%11,07
4. kapitulua	36.080,00	36.080,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	2.256.313,00	2.500.524,00	244.211,00	%10,82

Bi kapitulutan biltzen da programa honek izandako igoera:

- **1. kapitulua** (+19.390 €, +% 10,28) Udalak aurreikusitako % 2,5eko soldata igoera orokorraren eta lanpostuen balorazio sorta baten emaitzaren ondorioz.
- **2. kapitulua** (+224.821 €, +% 11,07). Igoera hori, aurreko urteetan bezala, kudeatutako apartamentu eta etxebizitza komunitarioen gastuekin lotutako partida batzuen ondorioa da.

Programa horrek biltzen ditu adineko pertsona autonomoei zuzendutako etxebizitza sozialak mantentzeko gastuak, eta beraz, eragin positiboa duen programa da zainketen esparruan. 4. kapituluan eutsi egiten zaio AFIGI elkarteari (Alzheimerra edo beste demenziaren bat duten Gipuzkoako pertsonen, senitartekoen eta lagunen elkarte) emandako zuzeneko laguntzari .

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan ez dugu gastu eraldatzaileak identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Zerbitzuaren eskaera datuei, estaldura tasari eta onuradunak hautatzeko irizpideei** buruzko azterketa sistematikoa egiteko gomendioari eusten zaio, **sexuaren arabera bereizita, generoaren ikuspegitik balorazioa** egiteko. Era berean, desiragarria da **azterketarako aldagai berriak integratzea (interseksionalitatea).**

5.2.7. GIZARTE ABEGI ETXEA

- PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte abegi etxea programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **1.902.836 €-ko** zuzkidura du (2024an 1.810.430 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,37** hartzen du, 2024an bezalatsu. Beraz, **+92. 046 €-ko** igoera izan du (**+% 5,10**).

GIZARTE ABEGI ETXEA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.139.700,00	1.166.524,00	26.824,00	%2,35
2. kapitulua	670.730,00	736.312,00	65.582,00	%9,78
GUZTIRA	1.810.430,00	1.902.836,00	92.406,00	%5,10

Igoerarik handiena **2. kapituluan** gertatu da, bertan biltzen direlarik Mons pasealekuan etxegabeak hartzeko harrera zentroko mantentze eta funtzionatze gastuak. Zentro horretan erabiltzaileek gehienez ere 5 gau eman ditzakete, eta “exijentzia maila apaleko” etxea da, erabiltzaile gehienak gizonetzkoak direlarik.

Aldea gastu partiden zenbatekoetan izandako aldaketen ondorioa da, eta zenbateko handienak catering zerbitzuan (+109.270 €), eraikinen kontserbazioan (-60.500 €) eta inbentariatu ezin diren altzari eta tresnetan (+13.555 €) gertatzen dira.

- PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2024an bezala, eutsi egin zaio Abegi Etxeko erabiltzaileei zuzendutako **10.200 €-ko** zuzkidurari prestakuntzak eta jarduerak egiteko (226.10 partida).

- GOMENDIOAK**

- ✓ **Gizarte bazterkeria egoera larrian dauden emakumeei zuzendutako jarduerari esleitutako gastua lehenestea.**

5.2.8. GIZARTERATZEA

- PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarteratzea programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **5.620.744 €-ko** zuzkidura du (2024an 5.337.593 €), hau da, **udal aurrekontuen % 1,09** hartzen du (2024an % 1,10). Beraz, **+283.151 €-ko** igoera izan du programa honek (**+% 5,30**).

GIZARTERATZEA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	582.890,00	604.287,00	21.397,00	%3,67
2. kapitulua	2.741.814,00	3.507.457,00	765.643,00	%27,92
4. kapitulua	1.509.000,00	1.509.000,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	503.889,00	0,00	-503.889,00	-%100,00
GUZTIRA	5.337.593,00	5.620.744,00	283.151,00	%5,30

Hauexek dira aldaketa esanguratsuenak beheranzko hurrenkeran eta 2024ko urtearekin alderatuta:

- **6. kapituluak** ez du aurrekontu zuzkidurarik amaitu delako Salia Etxea zaharberritzeko lana. Etxe espezializatu horrek, alde batetik, arreta ematen die zaugarritasun egoeran edo arriskuan dauden adin txikikoen familiei, eta, bestetik, eguneko zentro bat eskaintzen die bazterkeria egoeran dauden pertsoneri. Genero ikuspegitik, garrantzi handikoa da, batez ere familiekin esku hartzeko esparruan.
- **2. kapituluan** batez ere igoera hauek nabarmentzen dira: 227.04.04 Eguneko arreta zentroa (+338.133 €), 227.04.02 Esku hartzea gizarte larrialdietan (+205.695 €), 227.04.00 Gaueko arreta zentroa, laguntza teknikoa (+233.843 €).
- **1. kapitulua** Udalak aurreikusitako % 2,5eko soldata igoera orokorraren eta lanpostuen balorazio sorta baten emaitzaren ondorioa da.

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Ez da gastu eraldatzaile espezifikorik identifikatu.

● GOMENDIOAK

- ✓ **Gizarte bazterkeria egoera larrian dauden emakumeei eta haurrei** eta programa honek kudeatutako zentroetako balizko erabiltzaileei zuzendutako **ekintza positiboak inplementatzea**.

5.2.9. ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Adin txikikoen prebentzioa eta familia programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **4.010.670 €-ko** zuzkidura du (2024an 3.502.716 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,78** hartzen du (2024an % 0,72). Beraz, **+507 945 €-ko** igoera izan du programa honek (**+% 14,50**).

ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	721.976,00	1.087.703,00	365.727,00	%50,66
2. kapitulua	2.780.740,00	2.922.967,00	142.227,00	%5,11
GUZTIRA	3.502.716,00	4.010.670,00	507.954,00	%14,50

Aurreko urtean bezala, igoserarik handiena **1. kapituluan** gertatu da, antzeko arrazoi batengatik, epai judizial baten ondorioz Udalak kontratatu beharreko psikologo talde bat kontratatu behar delako.

2. kapitulari dagokionez, honako partida hauetan gertatzen dira aldaketa nagusiak:

- 227.04.09 Prestakuntza, aholkularitza eta esku hartze goiztiarra partida, -201.425 €-ko jaitsierarekin.
- 227.04.05 Arreta sozio-hezitzailea eta psiko-soziala zerbitzua partida, +330-625 €-ko igoserarekin.
- Gainera, positibotzat jotzen dugu 2025ean **partida berri bat sortzea, 227.04.02 Indarkeria matxista prebenitzeko laguntza teknikoa** partida, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimei Arreta emateko Zerbitzuaren (IMEBAZ) ebaluazioa egiteko 10.000 €-ko zenbatekoarekin.
- Gainera, positibotzat jotzen dugu 2025ean **partida berri bat sortzea, 227.04.02 Indarkeria matxista prebenitzeko laguntza teknikoa** partida, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimei Arreta emateko Zerbitzuaren (IMEBAZ) ebaluazioa egiteko 10.000 €-ko zenbatekoarekin.

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimei Arreta emateko Zerbitzua (IMEBAZ) programa honetan txertatzen da maila funtzionalean. IMEBAZek ostatu, harrera, diagnostiko, orientazio, laguntza psikologiko eta premiazko laguntza ekonomikoko baliabideak eskaintzen dizkie indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeei.

Beraz, langile horientzako **personal gastu** osoa gastu eraldatzailea da. Oso positiboa da aurten **zerbitzu honetarako psikologo baten zuzkidura handitu** izana; izan ere, 2024an 1. kapituluaren aurrekontu zuzkidura 215.562,77 €-koa izan bazen, 2025ean 326.661 €-koa izango da (% 51,54ko igoera, bertan jasotzen delarik 1. kapitulurako aurrekontu igoera orokorra, % 2,5koa).

Gainera, 2025erako **10.000 €-ko** zuzkidura aurreikusi da **IMEBAZren ebaluazio txosten bat egiteko**.

Beraz, **guztira** 336.661 €-koa da programa honen **gastu eraldatzailea**, eta beraz, **% 56,18koa da igoera**.

ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	215.562,77	326.661,00	111.098,23	%51,54
2. kapitulua	0,00	10.000,00	10.000,00	
GUZTIRA	215.562,77	336.661,00	121.098,23	%56,18

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Datuak biltzeko sistematika eta** indarkeria matxista jasan duten emakumeen arreta integralean esku hartzen duten erakundeen arteko **koordinazioa** hobetzea.

5.2.10. ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Adineko pertsonen sustapena programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan **744.575 €-ko** zuzkidura du (2024an 688.904 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,14** hartzen du, 2024an bezalatsu. Beraz, +55.671 €-ko igoera izan du programa honek **(+% 8,08)**.

ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	298.051,00	305.182,00	7.131,00	%2,39
2. kapitulua	374.521,00	423.061,00	48.540,00	%12,96
4. kapitulua	16.332,00	16.332,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	688.904,00	744.575,00	55.671,00	%8,08

2. kapituluan gertatutako igoera funtsean 227.04.01 Dinamizazioa zentroetan partidari izandako +58.133 €-ko igoeran oinarritzen da (2025ean 257.273 €, eta 2024an 199.140 €) eta 277.04.02 Topalekuaren kudeaketa partidarekin batera (aldatu gabe, 116.160 €) 2. kapituluko gastu osoaren % 88 hartzen dute bi horiek.

Partida horietatik garatzen da programaren jarduera nagusia, beren jarduera udal ekipamenduetan edo ekipamendu propioetan garatzen duten adineko pertsonen elkarteei laguntzean datzana.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programaren baitan ez dugu gastu eraldatzailerako berariazko partidarik identifikatu.

Genero ikuspegitik, generoari garrantzi handiena ematen dioten partidak arestian adierazitakoak dira, gizarte eta kultura kontratuak eta Aieteko auzoko Topalekua deritzon zentroa kudeatzekoak. Baita 227.25 partida ere, zehazki 55 urtetik gorakoentzako “+55” udal aisialdi eta denbora libreko programa.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Berdintasunarekin batera koordinatzea** gomendatzen dugu adineko pertsoneri zuzendutako programa guztiak berrikusteko eta berdintasunaren eta indarkeriaren gaian premia berriak detektatzeko.

5.2.11. ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK

- PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Adineko pertsonentzako egoitzak programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025erako aurreikusitako aurrekontuan **964.843 €-ko** zuzkidura du (2024an 907.465 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,19** hartzen du, 2024an bezalatsu. Beraz, **+57.378 €-ko** igoera izan du programa honek (**+% 6,3**).

ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	907.465,00	964.843,00	57.378,00	%6,3
GUZTIRA	907.465,00	964.843,00	57.378,00	%6,3

2. kapituluan zentratzen da aurrekontu zuzkidura. Zenbateko hori Zorroaga Fundaziora bideratuko da bizitegi ekipamenduan adineko autonomoentzako ostatu eta arreta zerbitzua emateko. Aurreko urteetan bezala, Zorroaga Egoitzako erabiltzaileen koordainketaren arabera zehazten da zuzkidura, eta jaitziera horren arrazoia 2024ko benetako koordainketatik eratorritako doikuntza da.

- PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako partida jakinik zehazten.

- GOMENDIOAK**

- ✓ **Zerbitzuaren eskaerari eta estaldura tasari buruzko datuak sexuaren arabera berezita** aztertzeko gomendioari eusten diogu, zerbitzuaren egokitasuna genero ikuspegitik balioetsi ahal izateko.

5.2.12. ETXEZ ETXeko LAGUNTZA

- PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Etkez etxeko laguntza programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuan 9.999.707 €-ko zuzkidura du (2024an 9.948.044 €), hau da, **udal aurrekontuen % 1,93** hartzen du (2024an % 2,05). Beraz, **+51.633 €-ko** igoera izan du programa honek (**+% 0,53**).

ETXEZ ETXeko LAGUNTZA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	117.544,00	120.170,00	2.626,00	%2,23
2. kapitulua	9.830.500,00	9.879.537,00	49.037,00	%0,50
GUZTIRA	9.948.044,00	9.999.707,00	51.663,00	%0,52

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa barruan ez da gastu eraldatzailerako partida jakinik zehazten.

Funtsezko zerbitzua da genero ikuspegitik, eragin hirukoitza baitu: alde batetik, zaindutako pertsonen artean, kalitatezko zerbitzuarekin gozatu baitezakete; bigarrenik, emakume langileen artean, eta hirugarrenik, Etxez etxeko arreta zerbitzuak egin gabeko lan horiek beren gain hartu beharko lituzketen pertsonen artean, kasu askotan etxeko eremuan eta ordainsaririk jaso gabe, eta, ongi dakigunez, gehien-gehienak emakumeak direlarik.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Etxez etxeko zerbitzuaren lizitaziorako** erabilitako kontratazio agiriak **genero ikuspegitik aztertzea** gomendatzen dugu.

5.2.13. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte larrialdietarako laguntza programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2025eko aurrekontuak 2024ko aurrekontu zuzkidura berberari eutsi dio, **3.728.741 €**. Aitzitik, udal aurrekontuetan zati txikiagoa hartzen du, 2024an % 0,77 hartzen baitzuen eta 2025ean % 0,72.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	3.728.741,00	3.728.741,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	3.728.741,00	3.728.741,00	0,00	%0,00

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako partida jakinik zehazten.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Datuak sexuaren arabera bereizteko eta genero ikuspegitik aztertzeo praktikan sakontzea.** Datuen azterketan, ahal dela, **ikuspegi intersektzionala txertatzea** (adina, jatorria, etab.).

5.2.14. ZAHAR ETXEAK

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Zahar etxeak programa Gizarte Ekintzaren zuzendaritzapean dago. Halere, aurrekontuari dagokionez, Lehenetsuneko ondasun publikoen ekoizpena eta Kultura arloko gastu politikan sailkatzen da.

2025erako **1.527.337 €-ko** aurrekontua du (2024an 2.296.725 €), hau da, udal **aurrekontuen % 0,30** hartzen du (2024an % 0,47). Beraz, -769.388 €-ko jaitsiera izan da programa honen zuzkiduran.

ZAHAR ETXEAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	623.525,00	728.137,00	104.612,00	%16,78
4. kapitulua	723.200,00	723.200,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	950.000,00	76.000,00	-874.000,00	-%92,00
GUZTIRA	2.296.725,00	1.527.337,00	-769.388,00	-%33,50

Programa honetan ematen den aldea batez ere kapitulu hauetan gertatzen da:

- **6. kapituluan**, amaitu egin baita Groseko zahar etxea lekualdatzeko aurrekontu zuzkidura (-350.000 €) eta murriztu egin baita erdialdeko zahar etxea berritzeko partida (-524.000 €).
- **2. kapituluan** funtsean 227.07 Lan teknikoak partidan izandako aldaketan oinarritzen da aldea, "Zahar etxeak kudeatzen dituzten elkarteei laguntza teknikoa" emateko kontratura bideratutako zuzkidura +97.337 €-an emendatu baita.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Ez da gastu eraldatzaile espezifikorik zehazten.

• GOMENDIOAK

- ✓ **Berdintasunarekin batera koordinatzea** gomendatzen dugu adineko pertsonen zuzendutako programa guztiak berrikusteko eta berdintasunaren eta indarkeriaren gaitan premia berriak detektatzeko.

GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMEN GASTU ERALDATZAILEAREN LABURPENA

Arestian azaldutako datuetatik abiatuta ondorioztatzen dugu 2025erako **-% 27,39an apaldu dela gizarte ekintzako programa guztiei lotutako gastu eraldatzailea**. Murrizketa hori funtsean 6. kapituluan gertatutako jaitsieraren ondorioa da (amaitu dira Salia Etxea zaharberritzeko lanak), 1. kapitulua eta 2. kapitulua % 51,54 eta % 98,04 igo baitira, hurrenez hurren.

GIZARTE EKINTZA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	215.562,77	326.661,00	111.098,23	%51,54
2. kapitulua	10.200,00	20.200,00	10.000,00	%98,04
6. kapitulua	251.945,00	0,00	-251.945,00	-%100,00
GUZTIRA	477.707,77	346.861,00	-130.846,77	-%27,39

5.3. LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA

15 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Osasun sustapena.
- Osasun publikoa eta animalien ongizatea.
- Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua.
- Udal Musika eta Dantza Eskola (3 programa): Musika eta dantza eskola / Musika eta dantza eskola (Liburutegia) / Musika eta dantza eskola (Txistulariak).
- Heziketarako programak.
- Giza eskubideak.
- Kultur aniztasuna
- Donostia kultura.
- Euskara.
- Gazteria.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola) / Kirol instalazioak (Donostia Kirola).

5.3.1. OSASUN SUSTAPENA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Osasuna gastu politikaren baitan biltzen da **Osasun sustapena** programa, eta 2025erako **239.360 €-ko** aurrekontu zuzkidura du (2024an 315.323 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,05** hartzen du (2024an % 0,04). Beraz, 2025ean **+24.037 €-ko** igoera izango du (**+% 11,16**).

OSASUN SUSTAPENA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	132.073,00	135.110,00	3.037,00	%2,30
2. kapitulua	83.250,00	104.250,00	21.000,00	%25,23
GUZTIRA	215.323,00	239.360,00	24.037,00	%11,16

Programa honetako aldaketa nagusia **2. kapituluan** izandako igoeraren emaitza da, ondoko datu hauen arabera:

- 226.99.02 Osasun mentaleko programa partida, +25.000 €-ko igoera (2024ko zuzkidura, 15.000 €-koa).
- 226.99.01 Osasun sustapena partida, -4.000 €-ko jaitsiera (2024ko zuzkidura, 59.500 €-koa).

Bi partida horiek garrantzitsuak dira genero ikuspegitik, eta funtsezkoak dira programan garatu beharreko jardueran. Horrexegatik, garrantzitsua da haren garapenean genero ikuspegia zeharka txertatzea.

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Programa honek ez du gastu eraldatzaile jakin bat zehazten. Nolanahi ere, **berdintasun departamentuarekin lankidetzan aritzeko leerroari** eusten zaio esku hartze ildo batzuk identifikatzeko, nahiz eta oraingoz ez diren aurrekontuan islatu.

- **GOMENDIOAK**

✓ Aurrekontuan zuzkidura ekonomiko bat esleitzeko gomendioa berresten dugu, **Berdintasun arloarekin batera identifikatutako jarduera** ildoak burura eraman ahal izateko.

5.3.2. OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Osasuna gastu politikaren baitan biltzen da **Osasun publikoa eta animalien ongizatea** programa, eta 2025erako **1.497.375 €-ko** aurrekontu zuzkidura du (2024an 1.324.588 €), hau da, **udal aurrekontuen % 0,29** hartzen du (2024an % 0,27). Beraz, 2025ean **+172.787 €-ko** igoera izango du (**+% 13,04**).

OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	604.358,00	754.580,00	150.222,00	%24,86
2. kapitulua	720.230,00	742.795,00	22.565,00	%3,13
GUZTIRA	1.324.588,00	1.497.375,00	172.787,00	%13,04

Programa honen igoera batez ere **1. kapituluan** oinarritzen da; izan ere, Kontsumitzailea informatzeko udal bulegoa (KIUB) bertako langileekin (2 postu) kudeatzen da 2024. urte amaieraz geroztik.

2. kapituluari dagokionez, hauetan gertatzen dira aldaketak:

- Handitu egin da Adikzioak Programara bideratutako partidaren aurrekontu zuzkidura (+5.236 €), eta guztira 51.300 €-ko aurrekontua esleitu zaio.
- **Partida berri bat sortu da, 226.99.04 Genero ikuspegia adikzioak programan, 6.000 €-ko** zuzkidurarekin. Positibotzat jotzen dugu partida horren sorrera oso-osorik delako gastu eraldatzaile.
- Azterlanak eta lan teknikoak partida +10-129 €-an handitu da, baina ez dugu haren edukiaren berririk.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Aurreko atalean deskribatu den bezala, 2025erako **6.000 €-ko gastu eraldatzailea** aurreikusi da, ekimenak programan genero ikuspegia txeratzeko.

Esku hartze horren izaera **garrantzitsua da genero ikuspegitik**, esku hartze horiek zuzenean bideratzen baitira Donostiako gazteekin, eta haien bidez desberdintasun, jazarpen eta indarkeria egoerak landu baitaitezke eta/edo beste udal zerbitzu batzuetara bidera baitaitezke.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Berdintasunarekin koordinazio ildoari** eustea, adikzioak planaren baitan genero ikuspegia aintzat hartzen dituzten ekimen gehiago identifikatzeko.

5.3.3. HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hezkuntza gastu politikaren baitan biltzen da **Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua** programa, eta 2025erako **8.852.570 €-ko** aurrekontu zuzkidura du (2024an 8.809.006 €), hau da, **udal aurrekontuen % 1,71** hartzen du (2024an % 1,82). Beraz, 2025ean **+43.564 €-ko** igoera izango du (**+% 0,49**).

HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.982.575,00	2.029.729,00	47.154,00	%2,38
2. kapitulua	6.126.431,00	6.272.841,00	146.410,00	%2,39
6. kapitulua	700.000,00	550.000,00	-150.000,00	-%21,43
GUZTIRA	8.809.006,00	8.852.570,00	43.564,00	%0,49

Programa honek sare publikoko **lehen eta haur hezkuntzako ikastetxeetako mantentze lanak** ditu esleituta. 2025ean **2. kapituluko** igoera batez ere Garbiketa lanak partidaren igoeran (+413.410 €) eta Gas (-250.000 €) eta Energia elektrikoa (-17.000 €) partiden jaitsieran oinarritzen da.

2024an bezala, negatiboa baita, **6. kapituluan ez da patio inklusiboak garatzeko berariazko partidarik aurreikusten**. 2025eko ekitaldiari begira, 6. kapituluan 622.01.02 Eskoletako eraikinak partida baizik ez da bereizten, 550.000 €-ko zuzkidurarekin.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2025. urterako ez da gastu eraldatzailerik zehazten.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Patio inklusiboen esku hartze ildo berreskuratzea.** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planetik eratorritako 5. Proiektuan zehaztutakoaren arabera. *5.2 neurria: Hezkidetzarako patioak. Genero ikuspegia txertatzea ikastetxeetako patioetan egiten diren hobekuntza eta mantentze lanetan (beste espazio batzuk sortu: txoko lasaiak, berdeak, baratzea, mugimendu edo kirol praktika askotarikoak egitekoak).*

5.3.4. UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA) / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK)

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Musika eta Dantza Eskola **Udal Erakunde Autonomoa** da, eta arautu gabeko irakaskuntzaren helburuetan parte hartzen du, kulturaren sorkuntza, kritika eta transmisioari begira, musika eta dantza diziplinen berriazko eta lehentasunezko eremutik.

Hiru aurrekontu programek osatzen dute programa honen aurrekontua: Musika eta dantza eskolak, 5.805.849 €-ko zuzkidurarekin (2024koarekin alderatuta, % 1,03ko igoera) **Hezkuntza** gastu politikaren baitan. Eta Musika eta dantza eskola (liburutegia), 182.238 €-ko zuzkidurarekin (2024an baino % 2,10 gehiago) eta Musika eta dantza eskola (Txistulariak), 733.913 €-ko aurrekontu zuzkidurarekin eta +% 3,18ko igoerarekin **Kultura** gastu politikaren baitan.

Beraz, batera hartuta, Musika Eskolak **6.722.000 €-ko aurrekontua du 2025. urterako**, hau da, 2024an baino +% 1,29 gehiago. **Udal aurrekontuen % 1,30** hartzen du, eta 2024an % 1,39 hartzen zuen.

Udalak, guztira, 3.938.218 € jartzen ditu gastu arruntean, izan ere, 2025erako desagertzen da kapital gastuan egindako ekarpena (2024an 101.000 €).

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	5.939.823,00	6.098.730,00	158.907,00	%2,68
2. kapitulua	594.770,00	622.570,00	27.800,00	%4,67
3. kapitulua	1.000,00	700,00	-300,00	-%30,00
6. kapitulua	101.000,00	0,00	-101.000,00	-%100,00
GUZTIRA	6.636.593,00	6.722.000,00	85.407,00	%1,29

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Programa honen gastu eraldatzailea **Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren (2022-2026)** implementazioan biltzen da. 1. ardatzaren helburuen artean jasota dagoenez, helburua da "aurrekontu nahikoa ahalbidetzea planifikatutako ekimenak burura eramateko". Gainera, nabarmendu behar da badela **barneko Berdintasun batzorde** bat, berdintasun departamentuarekin koordinatuta plan hori kudeatzen eta dinamizatzen duena.

Testuinguru horretan, 2025erako **11.6000 €-ko gastu eraldatzailea** aurreikusi da, eta, beraz, 2024koarekin alderatuta, **+5.100 €-ko igoera** izango da (**+% 78,46**).

Ondoko taulan daude jasota partiden xehetasunak, eta honako hauetan biltzen dira partida horien bidez garatu beharreko jarduketaren deskribapenak:

"Kanpoko bestelako enpresa lanak" partida (01.227.99.99), guztira 9.000 €-rekin.

- Plantillaren egoeraren azterketa berdintasunaren ikuspegitik (2.500 €).

- Sexu jazarpen eta sexuaren ziozko jazarpen kasuetarako ikerketa batzordekideentzako prestakuntza (2.500 €).
- Haurrak eta nerabeak indarkeriatik osorik babesteko Lege organikoari erantzungo dion protokoloa lantzea (2.500 €).
- Berdintasuna sustatzeko xedea duten 3 jarduketa egitea, gutxienez, eta sentsibilizatzeko jarduketa bat txistuaren inguruan (1.500 €).

“Funts bibliografikoak” partida (01.628):

- Liburutegia berdintasun gaiak lantzen dituzten emakumezko egile eta interpreteen materialaz hornitzea (1.100 €).

“Garraioak” partida (228.01):

- Berdintasuna sustatzeko xedea duten 3 jarduera egitea, gutxienez, eta sentsibilizatzeko jarduera bat txistuaren inguruan (1.500 €).

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Protokolo eta ordezkariak (02.226.02)	700,00	0,00	-700,00	-%100,00
Argitalpenak, publizitatea eta propaganda (02.226.03)	700,00	0,00	-700,00	-%100,00
Bilera eta hitzaldiak (02.226.05)	1.800,00	0,00	-1.800,00	-%100,00
Kanpoko bestelako enpresa lanak (01.227.99.99)	2.200,00	9.000,00	6.800,00	%309,09
Funts bibliografikoak (01.628)	1.100,00	1.100,00	0,00	%0,00
Garraioak (228.01)	0,00	1.500,00	1.500,00	
GUZTIRA	6.500,00	11.600,00	5.100,00	%78,46

Gastu eraldatzaileaz gain, Eskolak helarazitako informazioaren baitan adierazten da **kultura elkaratekiko hitzarmenetan** (aurrekontu zuzkidurarik gabe) eta **lizitazio** guztietan **genero klausulak** sartzen direla, baina ez da horien tipologia zehatzaren berririk ematen.

● **GOMENDIOAK**

- ✓ Barneko berdintasun batzordeak **jarduerak sustatzen jarraitzea**, eta ahal den neurrian, gastu eraldatzaileara bideratutako baliabideak handitzea.

5.3.5. HEZIKETARAKO PROGRAMAK

● **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hezkuntza gastu politikako **Heziketarako Programak** programa **handitu** da 2025ean, zehazki % **3,72**, eta 326.360 € izatetik **338.502 €** izatera igaro da. Eutsi egiten dio aurrekontuetan duen % 0,07ko pisuari.

HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	115.891,00	126.190,00	10.299,00	%8,89
2. kapitulua	80.140,00	81.983,00	1.843,00	%2,30
4. kapitulua	130.329,00	130.329,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	326.360,00	338.502,00	12.142,00	%3,72

Funtsean **1. kapituluaren** igoeraren ondorioa da igoera hori, Udalak aurreikusitako % 2,5eko soldata igoera orokorraren eta lanpostuen balorazio sorta baten emaitzaren ondorioa.

● **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Aurreko urteetako ildoari jarraiki, **finkatu egiten da** gastu eraldatzailearen **aurrekontu zuzkidura, eta apur bat igo da, 70.073 €-tik 70.369 €-ra.**

Gastu eraldatzaile horrek, era berean, aurreko urteetako xedearen antzeko xedea du:

- **226.99.01 “Berdintasun programa” partida**, guztira 24.825 €-ko zenbatekoarekin, ondoko jarduerak bilduz:
 - Mundu arrakalatu baten bila heziketa programa (4.900 €).
 - Maitasun erromantikoari buruzko tailerrak Donostiako ikastetxeetan (7.573 €).
 - Etorkizunerako gazteen prestakuntza programa (3.980 €).
 - Unitate didaktikoen sorrera Mapandreak proiektuaren harira (8.372 €).
- **226.99.02 “Genero indarkeria prebenitzeko programa” partida**, 28.211 €-ko zenbatekoarekin, xede hauek betetzeko:
 - Heziketa programa Altzako Institutuan, DBHn zehar eskola komunitatea sustatuz LAHIA 3.0. elkartearekin (6.723 €).
 - Mikroantzerki saioak eta eztabaida deskonektatuak sustatzea, gazteekin teknologien erabilera aztertuz eta landuz. Heziketa programa DBHn (13.800 €).
 - Sexualitatearen inguruko heziketa integrala Donostiako Lehen hezkuntzako ikastetxeetan (7.688 €).
- **229.99.06 “LGTBIQ+ diskriminazioaren eta bullyng-aren aurkako kanpaina” partida**, 10.500 €-ko zuzkidurarekin, Deseraikiz programaren barruan eta Lehen Hezkuntzan eta DBHn tailerrak inplementatzeko.
- **481.03 “Hip Hip Hurri Programa” partida**, 6.833 €-ko zuzkidurarekin.

Gastu eraldatzailearekin batera, programak helarazitako informazioaren barruan, **genero klausulak aintzat hartu dituzten hitzarmen eta dirulaguntza lerro batzuk** aipatzen dira, horien tipologia zehaztu gabe. Zehazki, hauexek dira: Dirulaguntzak ikastetxeekin lotutako elkarteei (99.840 €), Dirulaguntzak Igeldoko eta Zubietako Eskola Txikietako Gurasoen Elkarteei (5.946 €), Lankidetzak hitzarmena Baillararekin (16.000 €) eta Laguntza Eskola Publikoaren egunari (2.160 €).

HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2025	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	63.240,00	63.536,00	296,00	%0,47
4. kapitulua	6.833,00	6.833,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	70.073,00	70.369,00	296,00	%0,42

- GOMENDIOAK**

- ✓ Prestakuntzan aurrera egitea **jardueretan ikuspegi intersektionala** inplementatzeko.

5.3.6. GIZA ESKUBIDEAK

- PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hezkuntza gastu politikako **Giza Eskubideak** programak 626.938 €-ko zuzkidura du 2025erako (2024an 607.150 €). Beraz, **+19.788 €-ko** igoera du (**+% 3,26**), baina aurrekontuetan pisu pixka bat galdu du, % 0,13tik **% 0,12ra**.

GIZA ESKUBIDEAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	243.272,00	257.189,00	13.917,00	%5,72
2. kapitulua	264.898,00	270.769,00	5.871,00	%2,22
4. kapitulua	98.980,00	98.980,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	607.150,00	626.938,00	19.788,00	%3,26

1. kapituluaren igoerak % 2,5eko soldata igoera orokorrean eta lanpostuen balorazio sorta batean du jatorria.

2. kapitulan izandako igoera (+% 2,22) ondoko aldaketa hauen ondorioa da:

- 227.04 Bisita gidatuak eta antzeztuak partidaren sorrera, 22.784 €-ko zuzkidurarekin.
- 226.99.02 Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak partidaren murrizketa -13.914 €-an (2024an 112.530 €).
- 226.99.01 Oroimen historikoa partidaren murrizketa -17.000 €-an (2024an 57.250 €).

Aldaketa horiek kontuan harturik, hauxe da 2025erako jardueretara bideratutako partida sorta:

Partida	Gastuen deskribapena	2025	2024	Aldea
226.99	Bestelako gastuak	198.400 €	206.530 €	-8.130 €
226.99.01	Oroimen historikoa	40.250 €	57.250 €	-17.000 €
226.99.02	Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak	98.616 €	112.530 €	-13.914 €
226.99.06	Oraitzepenezko ekintzak eta biktimen aitortza	18.000 €	18.000 €	0 €
226.99.08	Gerra Zibileko kokalekuak seinaleztatzea	18.750 €	18.750 €	0 €
227.04	Bisita gidatuak eta antzeztuak	22.784 €		22.784 €
	GUZTIRA	221.184 €	206.530 €	14.654 €

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

2025erako **-12.000 €-an murriztu da gastu eraldatzailea**, **-% 41,38** 2024ko urtearekin alderatuta. Jaitsiera hori 2024an LGTBIQ+ Ekintza plana egiteko bideratutako 12.000 €-ak desagerraraztearekin lotu behar da.

Guztira **17.000 €-koa da esleitutako gastu eraldatzailea**, eta **226.99.02 Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak** partidan biltzen da, gisa honetan banakatua:

- 15.000 € ekainaren 28ko LGTBIQ+ Kanpainarako.
- 2.000 € LGTBIfobiari buruzko urteko txostenak egiteko.

Bestalde, gastu eraldatzailearekin batera, programak helarazitako informazioaren baitan, **genero klausulak sartu diren dirulaguntza eta lizitazio batzuk** adierazten dira, horien tipologia zehaztu gabe. Zehazki, hauexek dira: "Dirulaguntza bake eta giza eskubideetarako" (50.240 €), Dirulaguntza nominatiboa AVT elkartearentzat (18.000 €), Dirulaguntza nominatiboa UPV-EHUrentzat (12.000 €) eta bisita gidatuen eta antzeztuen lizitazioarentzat (22.784,30 €).

● GOMENDIOAK

- ✓ **Aurrekontu zuzkidura egoki bat egitea LGTBIQ+ Ekintza planetik eratorritako neurriak inplementatzeko.**

5.3.7. KULTUR ANIZTASUNA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hezkuntza gastu politikan sartzen den **Kultur Aniztasuna** programa **+% 4,31n handitu** da, guztira **444.646 €-ko** zuzkidura du (2024an 426.289 €). Eutsi egiten dio aurrekontuetan duen pisuari, % 0,09 hartzen baitu.

KULTUR ANIZTASUNA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	176.525,00	186.048,00	9.523,00	%5,39
2. kapitulua	162.074,00	170.908,00	8.834,00	%5,45
4. kapitulua	87.690,00	87.690,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	426.289,00	444.646,00	18.357,00	%4,31

1. kapituluaren igoerak % 2,5eko soldata igoera orokorrean eta lanpostuen balorazio sorta batean du jatorria.

Bestalde, funtsean hauexek dira **2. kapituluaren** emendioaren arrazoiak:

- 227.04.01 Emakumeen kulturarteko gunea partida +7.334 €-an handitu da. 2025erako zenbateko osoa, 25.920 €.
- 227.04.00 Askotariko donostiarrak partida -4.533 €-an murriztu da (104.197 € 2025erako).
- 226.99.03 Emakumeen kulturarteko gunea -2.047 €-an murriztu da, eta 2025erako guztira 561 €-ko zuzkidura izango da.
- 226.99.01 Sentsibilizazio kanpainak partida +7.500 €-an handitu da, eta 2025erako guztira 27.500 € izango dira. Partida horrekin egiten dira arloarekin zerikusia duten nazioarteko egunak, hala nola:
 - Martxoak 21: Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako eguna.
 - Apirilak 8: Ijito Herriaren Nazioarteko eguna.
 - Maiatzak 21: Kultur Aniztasunaren eguna.
 - Ekainak 20: Errefuxiatuen Munduko eguna.
 - Azaroak 20. Haurren nazioarteko eguna (kulturarteko ikuspegitik).
 - Abenduak 19: Migratzaileen eguna.

Kanpaina horietan eguna gogoratzeko jarduera espezifikoak egiten dira, eta herritarrei zuzendutako prestakuntza eta saio batzuk egiten dira kulturarteko bizikidetzak sustatzeko eta zurrumurruei aurre egiteko. Kontuan harturik jardueren izaera, **genero ikuspegia txertatzea gomendatzen dugu.**

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Programa honetan gastu eraldatzailezat esleitutako zenbatekoa iazkoaren **oso antzekoa da**, +% 0,46 handitu da. Zenbateko horren xedea iazkoaren berdina da:

- **Emakumeen Etxeko** emakumeak ahalduntzeko eta elkartzeko **Emakumeen kulturarteko gunea** dinamizatzea –jatorri askotariko emakumeen gunea da, astero-astero bilerak egiten dituen gure hirian migrazioaren bizipena partekatzeo–.

KULTUR ANIZTASUNA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	8.944,00	8.985,55	41,55	%0,46
GUZTIRA	8.944,00	8.985,55	41,55	%0,46

● GOMENDIOAK

- ✓ Berdintasun legean ezarritakoaren arabera, **interseksionalitateak izan behar du printzipio gidarietako bat** politika publiko guztietan; horrexegatik uste dugu behar-beharrezkoa dela **programa honetan aurrekontu baliabideak handitzea.**

5.3.8. DONOSTIA KULTURA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostiako **Udalaren mendeko Enpresa Erakunde Publikoa** da Donostia Kultura. Udalaren kultura politika bideratzen du, eta herritarrei kulturarekin eta herri jaiekin lotutako hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie, zerbitzu horiek nortasun indibiduala eta kolektiboa osatzen duten adierazpentzat hartzen baitira.

2024koaren aldean, 2025an **+% 7,72an igo da programaren aurrekontu zuzkidura**, 33.125.807 € izatetik **35.683.297 €** izatera igaro da. Aurrekontuetan **% 6,90 hartzen du** (2024an % 6,83).

Udalak egiten duen ekarpena da programaren diru sarrera iturri nagusia, egungo aurrekontuan 27.253.405 € hartzen baititu **gastu arruntean** eta 2.127.930 € **kapital gastuan** (2024an baino gehiago bi kontzeptuetan).

DONOSTIA KULTURA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	15.084.611,00	15.687.995,00	603.384,00	%4,00
2. kapitulua	16.374.743,00	17.103.136,00	728.393,00	%4,45
4. kapitulua	734.953,00	754.981,00	20.028,00	%2,73
6. kapitulua	930.000,00	2.127.700,00	1.197.700,00	%128,78
8. kapitulua	1.500,00	9.485,00	7.985,00	%532,33
GUZTIRA	33.125.807,00	35.683.297,00	2.557.490,00	%7,72

2024an bezala, aldaketa esanguratsuena **6. kapituluan** gertatzen da, +1.197.700 €-an handitzen baita. Jarraian adierazten da zenbateko horren xedea, zenbatekoak banakatuta:

Eraikinak	225.000,00
Okendo Kultur Etxeko zaharberritze proiektua	1.275.000,00
Loiola Kultur Etxeko irisgarritasunerako proiektua	477.700,00
San Telmo museorako funtsak	150.000,00
GUZTIRA	2.127.700,00

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Programa honetako **gastu eraldatzailea** -% 11,19an apaldu da 2024koarekin alderatuta.

Ondoko taulan daude jasota esleitutako gastuaren xehetasuna eta haren eboluzioa 2024. urtearekin alderatuta. Konparazioa egiteko, halaxe azaldu baitzen 2024an, bateratu egin da berdintasun planaren zuzkidura prestakuntzekin. Hala ere, hauxe da 15.000 €-ko zuzkidura duen lerro horren xehetasuna (2024an baino -2.000 € gutxiago):

- Berdintasun plana: 12.000 €.
- Prestakuntza: "Irakurketak genero ikuspegiarekin" (1.000 €).
- Prestakuntza: "LinkedINen berdintasuna sortu" (2.000 €).

Kultur jarduketei dagokienez, honako hauetan biltzen da gastu eraldatzaile gisa esleitutako aurrekontu zuzkidura:

- **Gure Ahotsak** programa, **35.000 €-ko zuzkidurarekin (-3.629 €-an apaldu da 2024koarekin alderatuz)**. Ekimen hau, iragan urteetan ere burutua, Viktoria Eugenia Antzokian antolatzen da Emakumeen Nazioarteko Egunean emakume musikariei ikusgarritasuna emateko. 2025eko edizioan **5 kontzertu aurreikusten dira emakume ahotsekin, bai euskaraz bai gaztelaniaz**.
- **Eutsi egiten zaio 7.000 €-ko zuzkidurari emakumeen asterako (Intxaurren eta Altza)**.
- Azkenik, **San Telmo Museoko** jardueri dagokienez, amaitu egin da Euskal Artea erakusketaren narratiba genero berdintasunaren terminoetan, eta 2025erako **“Erronkak gure gizartean”** jarduera aurreikusten da, **7.500 €-ko aurrekontu zuzkidurarekin**.

DONOSTIA KULTURA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Berdintasun plana eta formakuntzak (2024)	17.000,00	15.000,00	-2.000,00	-%11,76
Emakumearen asteak (Intxaurren eta Altza)	7.000,00	7.000,00	0,00	%0,00
Gure ahotsak kontzertua	38.629,00	35.000,00	-3.629,00	-%9,39
San Telmo Museoa: Euskal Artea erakusketaren narratiba genero-berdintasunaren terminoetan	10.000,00	0,00	-10.000,00	-%100,00
San Telmo Museoa: Gure gizartearen erronkak	0,00	7.500,00	7.500,00	
GUZTIRA	72.629,00	64.500,00	-8.129,00	-%11,19

● GOMENDIOAK

- ✓ **Baliabide gehiago gastu eraldatzailean dagokion Berdintasun plana erabat garatzeko.**
- ✓ Erakundearen **berdintasuna** sustatuko duen **unitate edo egitura propioa sortzea, langile espezializatuez hornitua.**

5.3.9. EUSKARA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Kultura gastu politikan sartzen den **Euskara** programa **+% 2,3an handitu da**, eta 3.039.641 € izatetik 3.108.109 € izatera igaro da. Aurrekontuetan pisu txikiagoa du, lehen % 0,63 hartzen baitzuen eta orain % 0,60.

EUSKARA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.184.753,00	1.226.613,00	41.860,00	%3,5
2. kapitulua	1.047.685,00	1.068.293,00	20.608,00	%2,0
4. kapitulua	807.203,00	813.203,00	6.000,00	%0,7
GUZTIRA	3.039.641,00	3.108.109,00	68.468,00	%2,3

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Pixka bat jaitsi da gastu eraldatzaile gisa **esleitutako zenbatekoa**, 2024an 11.000 € izan baziren 2025erako 10.000 € izango baitira. Hortaz, **-% 9,09ko jaitziera izango da**.

Zenbateko horren xedea aurten aldatu egin da, eta **zainketa lanak egiten dituzten emakume migratzaileentzako materiala** sortzeko da, material hori enpresen bitartez banatuko delarik: hizkuntza harrera, baliabideak, etab. Horretarako, **berariazko partida bat sortu da, 226.99.02 Genero berdintasuna sustatzeko ekintzak**.

Beste programa batzuetan bezala, gastu eraldatzailearekin batera, programak helarazitako informazioaren baitan, **genero klausulak sartu diren dirulaguntza eta lizitazio batzuk** adierazten dira, horien tipologia zehaztu gabe. Hautzarolari eta gazteriarri zuzendutako lizitazioak eta dirulaguntzak direla adierazten da. Lizitazioen kasuan, hauek adierazten dira: Udako udaleku irekiak (185.000 €), “Haurrak beti jolasean (160.000 €), “Merkataritza eta ostalaritza euskaraz” (78.650 €), “Aisikasi” (40.000 €), “Udan haurrak mintza jolasean” (50.000 €), “Parketarrak egitasmoa” (50.000 €), Entrenamenduetan euskararen erabilera sustatzea (60.000 €), “Euskararen erabilera auzoetan sustatzea” (35.000 €).

Dirulaguntzei dagokienez, ildo batzuk adierazten dira: Euskararen ikaskuntza sustatzea (304.249 €), Euskaltegiertzako dirulaguntzak (135.150 €), Laguntzak irabazi asmorik gabeko elkarreentzat (65.260 €) eta dirulaguntza nominatibo sorta bat (251.120 €).

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Gaur egungo esku hartzeko ildoak (**emakume atzerritarrak ahalduentzea**) eta udal arloen artean **zeharkako neurriak** (genero, kulturarteko eta hizkuntza irizpideak) **txertatzeko** ildoak eustea. Eta ikastetxeetan ikasturte honetarako aurreikusitako jarduerak ildoak indartzea.
- ✓ **Bere ekintzetan intersektionalitate ikuspegiak** sakontzea.

5.3.10. GAZTERIA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Kultura gastu politikan sartzen da **Gazteria** programa. 2025erako **2.713.732 €-ko** aurrekontu zuzkidura du (2024an 2.676.371 €), eta, beraz, **+37.161 €-ko igoera izan du (+% 1,40)**. Aitzitik % 0,55etik % 0,52ra apaldu da aurrekontuetan duen pisua.

GAZTERIA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	552.591,00	526.828,00	-25.763,00	-%4,66
2. kapitulua	1.835.423,00	1.974.047,00	138.624,00	%7,55
4. kapitulua	137.857,00	137.857,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	150.500,00	75.000,00	-75.500,00	-%50,17
GUZTIRA	2.676.371,00	2.713.732,00	37.361,00	%1,40

1. kapituluaren jaitsieraren arrazoia da 2024ko aurrekontuan erdi mailako 7 teknikari postu jaso zirela. Baina 2025ean kopuru hori doitu egin da benetako egoerara, eta 6 postu izango dira.

2. kapituluari dagokionez, **jarduera soziokulturala** partida (**226.06**) eta **Hautxokoen eta Gaztelekuen** sarera bideratukoa (**227.04**) dira programa honen hartzaile diren kolektiboetan (neskatxak, haur nerabeak eta gazteak) zuzeneko eragina dutenak, eta garrantzitsuak dira genero ikuspegitik. Hautxokoetara eta Gaztelekuetara bideratutako zuzkiduraren kasuan, kapitulu honetan zenbateko handiena baitu (% 77), **handitu egin da 2025ean (+161.747 €, +% 11,86)**. Bestalde, 0-5 adin tarterako programaren zuzkidura 227.04 partidaren baitan jaso da 2025erako, 17.850 €-ko zenbatekoarekin.

Berdintasun programa partidak **2024ko zuzkidura berberari** eusten dio.

	Gastuen deskribapena	2025	2024	Aldea
226.06	Jarduera soziokulturalak	176.686,00	198.212,00	-21.526,00
226.06.03	Haur eta gazte aisialdia (denbora libre eta Gabonak)	35.000,00	38.000,00	-3.000,00
226.06.04	Gazte plana	23.324,00	21.850,00	1.474,00
226.06.05	Kultura hedatzea	5.200,00	5.200,00	0,00
226.06.06	Kultura sustatzea	34.292,00	34.292,00	0,00
226.06.07	Berdintasun programak	40.000,00	40.000,00	0,00
226.06.09	Martx Up! Programa	38.870,00	38.870,00	0,00
226.06.10	0-5 adin tarterako Programa	0,00	20.000,00	-20.000,00
227.04	Zerbitzu enpresak	1.526.006,00	1.364.259,00	161.747,00
	GUZTIRA	1.702.692,00	1.562.471,00	140.221,00

4. kapituluan laguntza ildo eta zenbateko berberei eusten zaie.

6. kapituluari dagokionez, eutsi egiten zaio **“Parte Zaharreko Hautxokoa”** partidari, 75.000 €-ko zenbatekoarekin, auzo horretan zerbitzu horretarako espazio bat gaitzeko. Partida hori zenbateko berberarekin esleitu zen 2024an, eta gastu eraldatzaileak jo zen berria zelako eta zaintzekin lotuta zegoelako.

• **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

GAZTERIA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	40.000,00	40.000,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	75.000,00	75.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	115.000,00	115.000,00	0,00	%0,00

2. kapituluko gastu eraldatzailearen **zenbatekoari eutsi egiten zaio** (40.000 €), eta honenbestez banakatzen da kopuru horren xedea:

- Indarkeria matxistak nerabezaroan gaiari buruzko IX. jardunaldiak (20.000 €).
- Beldur Barik programaren garapena (5.000 €).
- Indarkeria matxistaren aurkako eta berdintasuna sustatzeko jarduerak udal Hautxokoetan, Gaztelekuetan eta Kontadoresko gazte gunean (martxoak 8, azaroak 25, autodefentsa ikastaroak, maskulinitasun tailerrak, Kontadoresko laborategiak, Kontadoresko agertokia, etab.) (6.000 €).

- Donostia Gazteriak, haurrak eta nerabeak babesteko eta tratu onerako politika bat lantzea. Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko Lege Organikoa (5.000 €).
- Haurtxokoetan sexu hezkuntzako proiektua garatzea (4.000 €).

Haurtxokoen eta Gaztelekuen Sareak, jarduerak dinamizatzen dituen kanpoko kontratazioaren bidez, neskatxekin, hurrekin eta gazteekin lantzen ditu udal berdintasunerako Planarekin lerrotatzen diren **hezkidetza jarduerak**. Horrexegatik, ekipamendu eta jarduera horiek estrategikotzat jotzen dira genero ikuspegitik.

Bestalde, eutsi egiten zaio 6. kapituluaren zuzkidurari (75.000 €), Parte Zaharrean Haurtxokoa irekitzeko.

Ondorioz, guztira **115.000 €-koa da** programa honetan **gastu eraldatzailearen** guztizkoa, eta, beraz, **2024ko zenbateko berberari eusten zaio**.

Azkenik, beste programa batzuetan bezala, gastu eraldatzailearen baitan, programak helarazitako informazioaren arabera, **genero klausulak sartu diren dirulaguntza eta lizitazio batzuk** adierazten dira, horien tipologia zehaztu gabe.

Zehazki, hauen berri ematen da: Haurtxoko eta Gaztelekuen kudeaketaren lizitazioa (1.400.780 €), Kontadoresko zentroaren kudeaketa (164.803 €), Norgehiagokako dirulaguntzak (68.000 €), Gabonetako dirulaguntzak (5.200 €), Zuzeneko dirulaguntza Txomin Enea eta Roteta berri Haurtxokoei (64.657 €), eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin sinatutako hitzarmenaren baitan (9.000 €).

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Gazteriak sustatutako programetan **interseksionalitatearen integrazioan urratsak egiteko gomendioari eusten diogu.**

5.3.11. DONOSTIA KIROLA / ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA)

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Udalaren Tokiko Erakunde Autonomoa da Udal Kirol Patronatua, eta udalerrian kirola garatzea du helburu.

2025erako aurrekontu zuzkidura 23.096.547 €-koa da (2024an 23.472.877 €), eta, beraz, -% 1,60ko jaitsiera izan da. **Hiru aurrekontu programak osatzen dute** aurrekontua: Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa, 5.163.745 €-ko zuzkidurarekin (-% 16,09ko jaitsiera 2024koaren aldean), Donostia Kirola-Sustapena, 4.038.525 €-ko zuzkidurarekin (2024an baino +% 11,31 gehiago) eta Kirol instalazioak, 13.894.277 €-ko aurrekontu zuzkidurarekin, 2024an baino +% 1,35 gehiago.

Udalak guztira 11.213.732 €-ko **ekarpena egiten du gastu arruntean** eta 500.000 €-ko ekarpena **kapital gastuan**.

DONOSTIA KIROLA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	5.951.153,00	6.379.784,00	428.631,00	%7,20
2. kapitulua	14.261.224,00	14.788.263,00	527.039,00	%3,70
3. kapitulua	25.000,00	25.000,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	1.385.500,00	1.403.500,00	18.000,00	%1,30
6. kapitulua	1.850.000,00	500.000,00	-1.350.000,00	-%72,97
GUZTIRA	23.472.877,00	23.096.547,00	-376.330,00	-%1,60

1. kapitulari dagokionez, bi dira aldaketaren arrazoiak: alde batetik, % 21,5eko soldata igoera orokorra dugu, eta, bestetik, 2025erako urte osorako 3 lanposturen aurrekontua egin da, 2024an urte erdirakoa baino izan ez zenean.

Eta 6. kapitulari dagokionez, udal kirol instalazio batzuetan egin beharreko inbertsioetara bideratzen da, horietako batzuk 2024an gauzatu zirelarik.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

2025erako **-% 24,53an apaltzen da** programa honen gastu eraldatzailea, guztira 160.000 € izango dira. Aldaketa horren arrazoiak da, alde batetik, 2024an **Erreginaren koparako bideratutako 80.000 €-ko** partida desagertu izana (2025ean Zaragozan egingo da), eta, bestetik, **dirulaguntza ildoetan eta berdintasun planerako zuzkiduretan izandako igoera.**

DONOSTIA KIROLA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	0,00	15.000,00	15.000,00	
4. kapitulua	212.000,00	145.000,00	-67.000,00	-%31,60
GUZTIRA	212.000,00	160.000,00	-52.000,00	-%24,53

Hona hemen 2025erako gastu hori, banakatuta:

- **15.000 € beren Berdintasun plana implementatzeko.** Ez dugu aurreikusitako ekintzei buruzko xehetasunik jaso.
- **145.000 €** goi mailako emakumezko taldeei **dirulaguntza nominatibo sorta bat emateko** (2024an 132.000 €):

Partida	Deskribapena	2025	2024
471.03	Goi-mailako emakumezkoen taldea: Real Sociedad de Fútbol S.A.D. (Belar hockeya 2025/26)	10.000,00 €	10.000,00 €
481.08	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: Bera Bera R.T. (Eskubaloia 2025/26)	60.000,00 €	55.000,00 €
481.09	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: Ibaeta K.E. (Saskibaloia 2025/26)	60.000,00 €	55.000,00 €
481.10	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: C.H. Txuri Urdin (Izotz Hockeya 2025/26)	7.000,00 €	6.000,00 €
481.12	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: C.H. Txuri Berri (Curling 2025/26)	3.000,00 €	2.000,00 €
481.13	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldeak: Atletico SS (Atletismoa 2025/26)	5.000,00 €	4.000,00 €
	Guztira	145.000,00 €	132.000,00 €

2024an bezala, arraun elkarteei emandako dirulaguntzekin lotutako informazioa ez dago bereizita (Kaiarriba AE – Arrauna 2025: 115.000 € eta Donostia Arraun Lagunak Elkartea – Arrauna 2025: 35.000 €), eta ez dakigu zer zenbateko bereizten den emakumezko taldearentzat.

Kontuan hartuta aipatutako dirulaguntza nominatiboei buruzko datuak, dirulaguntza horiek **4. kapituluaren guztizkoaren % 10,3** hartzen dute.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Donostia Kirolan diagnostiko eta berdintasun plan bat** egitea, barne eta kanpo dimentsioarekin.
- ✓ **“Kirol jardunean haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko protokoloa” inplementatzea** Donostia Kirolan, eta ondoren Donostiako kirol klub guztietan sustatzea.

5.4. JARDUKETA EKONOMIKOAK

5 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Donostia Turismo.
- Donostia Sustapena, SA.
- Dbus.
- Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa.
- Proiektu eta obrak.

5.4.1. DONOSTIA TURISMO

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostia-San Sebastián Turismoa, SA Donostiako Udalaren merkataritza sozietatea da, **Sozietate Anonimoaren izaera du, eta udal titulartasuneko da erabat.**

2025erako **aurrekontu zuzkidura** 4.413.441 €-koa da, 2024koan baino pixka bat gehiago (+13.895 €, +% 0,32). Aurrekontuetan % 0,85eko pisua du (2024an % 0,91). **Udalak 3.358.741 €-ko ekarpena egingo du gastu arruntean** eta 180.200 €-ko ekarpena **kapital gastuan**.

DONOSTIA TURISMO	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.236.334,00	2.356.082,00	119.748,00	%5,35
2. kapitulua	1.823.012,00	1.877.159,00	54.147,00	%2,97
6. kapitulua	340.200,00	180.200,00	-160.000,00	-%47,03
GUZTIRA	4.399.546,00	4.413.441,00	13.895,00	%0,32

6. kapituluan izandako aldaketa batez ere “Bulego berria egokitzeko-hornitzeko” partidaren jaitzieran oinarritzen da, -150.000 €-an apaltzen baita (2024an 300.000 €). Eta 2024ko “Informazio eta harrera gunean presentzia kontrolatzeko kudeatzailea” partida desagertu delako (10.000 €). Gainerako partidak eta zenbatekoak 2024an bezala mantenduko dira.

- Aplikazio informatikoak (6.000 €)
- Kontabilitate tresna (9.200 €).
- Turismo baliabide eta enpresa berrien seinaleztapena (15.000 €).

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

2025erako handitu egin da identifikatutako gastu eraldatzailea, 2024an 500 € izan baitziren eta 2025ean 17.500 € (+% 3.400eko igoera).

Hona hemen zenbateko horren xedea:

- II. Berdintasun Planetik eratorritako ekimenak (hizkuntzetan inklusiboa izango den barneko/kanpoko komunikazio eskuliburu batzuk garatzea, LGTBIQ+ protokolo bat garatzea, etab.): 14.500 €.
- Lilatonen babesletza: 1.500 €.
- Sebastiane Sariaren babesletza: 1.500 €.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Beharrezkoak diren **aurrekontu baliabideak indartzen jarraitzea Donostia Turismoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Planean** identifikatutako neurriak burura eramateko.
- ✓ Jardueren artean eta Donostia hiriko bisitarien artean **indarkeria matxistaren aurreko sentsibilizazioa eta prebentzioa** lehenestea. Gainera, euren bisiten edo turismo programen dinamiketan **emakumeen ekarpenaren ikusgarritasuna txertatzea**.

5.4.2. DONOSTIA SUSTAPENA, SA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Donostia Sustapena SA **udal sozietate publikoa** da, eta **hiriko ekonomia eta gizartea sustatzen eta garatzen du**, berrikuntzaren, ezagutzaren sorkuntzaren eta eraldaketaren, sareko lanaren eta proiektuen sustapen eta kudeaketaren bidez, hori guztia iraunkortasun irizpideei jarraiki.

2025erako **aurrekontu zuzkidura 16.740.502 €-koa** da, eta, beraz, +% 9,52 igoera izan du 2024ko ekitaldiaren aldean. Aurrekontuetan pisu handiagoa du, 2024an % 3,15 hartzen baitzuen eta 2025ean % 3,23 hartuko baitu.

Bestalde, **Udalak 2025erako 5.922.000 €-ko ekarpena** egingo du gastu arruntean eta beste 1.297.521 € kapital gastuan.

DONOSTIA SUSTAPENA, S.A.	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.509.325,00	3.667.292,00	157.967,00	%4,50
2. kapitulua	7.515.261,00	8.027.444,00	512.183,00	%6,82
3. kapitulua	345.149,00	274.229,00	-70.920,00	-%20,55
4. kapitulua	3.198.845,00	3.103.720,00	-95.125,00	-%2,97
6. Kapitulua	380.000,00	1.297.521,00	917.521,00	%241,45
9. Kapitulua	336.884,00	370.296,00	33.412,00	%9,92
GUZTIRA	15.285.464,00	16.740.502,00	1.455.038,00	%9,52

1. kapituluan izandako aldaketa soldata igoera orokorraren eta hirurtekoen eguneraketan emaitza da. **6. kapitulari** dagokionez, arrandegi eraikinaren egokitzapenera bideratuta dago.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2025erako, **2. kapituluaren** barruan esleitutako **gastu eraldatzaile espezifikoa nabarmen handitu da (+% 273,9)**, batez ere Ekialdeko Distrituko emakumeei zuzendutako enplegarritasun programaren ondorioz. Hona hemen xehetasuna:

- **Berdintasun Planean** jasotako jarduerak garatzeko: **3.080 €**.
- **Emakumeak zientzian eta berrikuntzan ikusarazteko** ekintzak: **7.000 €**.

- **Emakumeen enplegarritasuna Ekialdeko distrituan** hobetzeko jarduerak: **46.000 €.**

Aurreko ekitaldietako ildo berean, Donostia Sustapena SAK sustatutako dirulaguntza lerro batzuen barruan emakumeei zuzendutako **ekintza positiboaren aurrekontu zuzkiduraren zenbatespena** kuantifikatu da.

Modu horretan, **3 laguntza lerro** identifikatu dira (**2024an 6 izan ziren**), **emakumea izanez gero ekintza positiboak dituztenak**, ondoko xehetasunen arabera:

- **Lanbideren kontratatze**ko laguntzak. Laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat: lanaldi osoko kontratazio mugagabeetarako igoeraren zenbatekoa: 800 € edo 1.000 €, kolektiboak izanez gero; jendaurreko ekitaldietako lanaldi osoko artisten edo teknikarien aldi baterako kontratazioetarako igoeraren zenbatekoa: 600 € edo 750 €, kolektiboak izanez gero. **Zenbatespena: 27.725 €.**
- **Laguntzak enpresa berriak sortzeko**: laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat (igoera hori ez da soilik emakumeentzat, ezpada egoera jakin batzuentzat, horien artean emakume izatea): 150 €. **Zenbatespena: 3.750 €.**
- **Ekin Talent laguntza**: 2.000 €-ko gehikuntza kontratatutako pertsona emakumea bada. **Zenbatespena: 24.000 €.**

Ondorioz, eta kontuan hartuta 2. kapituluko eta 4. kapituluko gastuak, **2025erako +% 46,9an emendatu da gastu eraldatzailea**, batez ere 2. kapituluko zuzkiduraren emendioagatik.

DONOSTIAKO SUSTAPENA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	15.000,00	56.080,00	41.080,00	%273,87
4. kapitulua	60.950,00	55.475,00	-5.475,00	-%8,98
GUZTIRA	75.950,00	111.555,00	35.605,00	%46,88

• GOMENDIOAK

- ✓ **Berdintasunaren eta enplegarritasun lerro espezifikoaren arteko komunikazio sistemak artikulatzea** emakumeentzat (funtsean Emaktiva), egoera horretan dauden emakumeen kolektibo osoari erantzuteko xedean (barne hartuta zaugarritasun egoera larriagoan dauden emakumeak).

5.4.3. DBUS.

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

2025erako, Dbus enpresak **71.709.392 €-ko** aurrekontua izango du (2024an 58.287.949 €), eta, beraz, **+% 23,03an** handituko da. Aurrekontuetan ere pisu handiagoa izango du, 2024an % 12,02 hartzen baitzuen eta 2025ean % 13,86.

2025erako Udalaren ekarpena **33.909.000 €-koa da gastu arruntean eta 22.926.797 €-koa kapital gastuan**. Aurreikuspenen arabera zerbitzuak emateagatik 2025ean sortuko diren diru sarrerak 14.919.173 €-koak izango dira.

DBUS	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	36.598.252,00	38.047.425,00	1.449.173,00	%3,96
2. kapitulua	10.557.978,00	9.639.640,00	-918.338,00	-%8,70
3. kapitulua	35.000,00	29.000,00	-6.000,00	-%17,14
6. kapitulua	10.199.943,00	22.926.797,00	12.726.854,00	%124,77
8. kapitulua	89.116,00	258.870,00	169.754,00	%190,49
9. kapitulua	807.660,00	807.660,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	58.287.949,00	71.709.392,00	13.421.443,00	%23,03

Aldaketa esanguratsuena baita, **6. kapitulua** aipatuko dugu. Hona hemen xehetasuna:

Furgoneta elektrikoa	40.000,00
Microbusak	339.797,00
Suteen aurkako sistema	1.250.000,00
BEI Proiektua	13.850.000,00
NG (Electrizen): 12 metroko 14 autobus elektrikoen erostea	7.371.000,00
NG (Electizen): Autobus elektrikoen flotarako kargak kudeatzeko sistema	76.000,00
GUZTIRA	22.926.797,00

6. kapituluaren % 60 IEA (Ibilgailu elektriko adimenduna) proiektura bideratzen da. Eusko Jaurlaritzak % 60an finantzatzen du proiektu hori. Bigarren zenbateko garrantzitsua **autobus elektrikoak** erosteko eta instalatzeko **Electricen proiektura** bideratuta dago, eta Next Generation funtsetan oinarritzen da.

● **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2025erako, **+% 36,67an handitu da** gastu eraldatzailerako bideratutako **aurrekontu zuzkidura**, 2024an 30.000 €-koa izan baitzen eta 2025ean 41.000 €-koa. Hona hemen gastu horren xehetasuna:

- DBUSeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta dagokion plana egiteko aholkularitza zerbitzua: 29.000 €.
- Langileak berdintasunaren arloan prestatzeko: 4.000 €.
- Gautxori lineen erabilera sustatzeko kanpaina: 5.000 €.
- BAI SAREaren bileretan eta lan jardunaldietan parte hartzea: 500 €
- ATUC-eko Mugikortasuna eta Generoa Batzordearen bileretan eta lan jardunaldietan parte hartzea: 2.500 €.

DBUS	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	30.000,00	41.000,00	11.000,00	%36,67
GUZTIRA	30.000,00	41.000,00	11.000,00	%36,67

Gainera, lizitazio batzuetan sartutako genero klausulen tipologia jakinarazi digu programak (lizitazioen xedea eta zenbatekoa zehaztu gabe). Hona hemen xehetasunak:

- Lizitazio 1: 1 punturekin balioetsiko da kontratua gauzatzen duten giza baliabideei berdintasunaren arloan eman beharreko urteko prestakuntzaren 2 ordu bakoitzeko, eta gehienez ere bost puntu emango dira.
- Lizitazio 1: 5 punturekin balioetsiko da kontratua gauzatzen duten gutxieneko giza baliabideei berdintasunaren arloan urteko 2 prestakuntza ordu emateko konpromisoa. Era berean, prestatzaileek (nagusia eta errefortzu edo ordezkapenak egiten dituen) berdintasunaren arloko prestakuntza izan beharko dute, lizitazio hau argitaratu aurretik azken urtean jasoa.
- 13 lizitazio klausula honekin: 5 punturekin balioetsiko da kontratua gauzatzen duten gutxieneko giza baliabideei berdintasunaren arloan urteko 2 prestakuntza ordu emateko konpromisoa.

● GOMENDIOAK

- ✓ Berdintasunerako III. Plana inplementatzeko **baliabideak indartzen jarraitzea.**

5.4.4. HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Azpiegiturak gastu politikan sartzen da **Hiri Mantentze eta Zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa** programa. 2025erako **1.668.604 €-ko** aurrekontu zuzkidura du (2024an 2.007.543 €), eta, beraz, **-%16,88ko** jaitsiera du. Aurrekontuetan % 0,32ko pisua du (2024an % 0,31koa).

HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.170.043,00	1.316.729,00	146.686,00	%12,54
2. kapitulua	327.000,00	341.375,00	14.375,00	%4,40
6. kapitulua	10.500,00	10.500,00	0,00	%0,00
7. kapitulua	500.000,00	0,00	-500.000,00	-%100,00
GUZTIRA	2.007.543,00	1.668.604,00	-338.939,00	-%16,88

1. kapituluaren igoera % 2,5eko soldata igoera orokorraren eta Zuzendaritza horretara beste 3 lagun bildu izanaren emaitza da.

2. kapituluaren igoera partida batzuetan izandako igoeren eta jaitsieren ondorioa da . Garrantzitsuenak hauexek dira: +53.375 €-ko igoera 226.09 Azterlan eta lan teknikoak partidan, eta -25.000 €-ko murrizketa 226.03 Publizitatea partidan

6. kapitulari dagokionez, eutsi egiten zaie zenbateko eta kontzeptu berberei (Erabilera orokorreko azpiegitura eta urbanizazioa). 2024an egindako 7. kapituluaren zuzkidura (733.01: Polloeri egindako ekarpena, kapital-gastua, 500.000 €) Hilerrien programa berrira birsailkatzen da eta inbertsioa atzeratzen da.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Aurreko urteko aurrekontuari eusten zaio, eta **226.99.02 partidari 25.000 €-ko** zenbatekoa esleitu da **puntu kritikoak** desagerrarazteko lanetatik etorritako gastuak ordaintzeko. Nolanahi ere, 2024an ez zen esleitutako zenbateko hori gauzatu.

- **GOMENDIOAK**

✓ **Puntu kritikoetarako esleitutako gastua gauzatu behar dela** azpimarratzea.

5.4.5. PROIEKTU ETA OBRAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Azpiegiturak gastu politikan sartzen da **Proiektu eta obrak** programa. **2025erako 6.614.354 €-ko** aurrekontu zuzkidura du (**2024an 10.028.383 €**), eta, beraz, **-% 34,04koa da jaitsiera**. Guztizko aurrekontuetan ere pisu gutxiago du, % 2,07 izatetik % 1,28 izatera igaro baita.

PROIEKTU ETA OBRAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.432.537,00	2.505.536,00	72.999,00	%3,00
2. kapitulua	87.404,00	87.575,00	171,00	%0,20
6. kapitulua	7.508.432,00	4.021.243,00	-3.487.189,00	-%46,44
GUZTIRA	10.028.373,00	6.614.354,00	-3.414.019,00	-%34,04

Programaren aldaketa funtsean **6. kapituluaren** jaitsieran oinarritzen da. Hona hemen aurreikuspenaren xehetasuna 2025erako:

Proiektu eta obrak		4.021.243,00
601.01	Haizearen Orrazia birgaitzea	650.000,00
601.03	Garbera merkataritza-guneko oinezkoentzako bideak	275.000,00
601.06	Kontxako barandaren azken fasea	150.000,00
601.07	Herreran puntu kritikoa	300.000,00
601.08	Puntu kritikoa hobetu, Misericordia kalea	200.000,00
601.09	Bera Berako urbanizazioa	692.188,00
601.10	Mons-Sasiain jarduketak	400.000,00
601.14	Anoetako urbanizazioa (3.fasea)	665.965,00
619.01	Morlanesko tunelaren egokitzea	250.000,00
643.01	Segurtasuna eta osasuna koordinatzea	238.090,00
643.02	Ikerketak eta proiektuak	200.000,00

Azpimarratu behar dugu Misericordia eta Herrera kaleetan hautemandako puntu kritikoak desagerrarazteko zuzkidura.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Berretsi egiten da **bai 2023an bai 2024an gastu eraldatzailean esleitutako 500.000 €-ko gastua. Nolanahi ere, oraindik ere ez da gauzatu**, zehazki **puntu kritiko** hauetan:

- 200.000 € Miserikordia kaleko puntu kritikoa hobetzeko.
- 300.000 € Herrerako puntu kritikorako.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Puntu kritikoen esparruan zehaztutako proiektuak gauzatzea.**

5.5. JARDUKETA OROKORRAK

4 programa aztertu dira gastuen arlo honetan:

- Ekialdeko distritua.
- Giza baliabideak.
- Herritarren parte hartzea.
- Kudeaketa ekonomikoa.

5.5.1. EKIALDEKO DISTRITUA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Jarduketa orokorrak gastu politikan sartzen da **Ekialdeko Distritua** programa. 2025erako aurrekontu zuzkidura **505.426 €-koa** da (2024an 455.135 €-koa). **+% 11,05eko igoera** du, eta udal aurrekontuetan % 0,09ko pisua izatetik % 0,10eko pisua izatera igaro da.

EKIALDEKO DISTRITUA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	70.000,00	70.000,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	385.153,00	435.426,00	50.273,00	%13,05
GUZTIRA	455.153,00	505.426,00	50.273,00	%11,05

Programa honen bidez gauzatzen dira berariaz Hiriko Ekialdeko Distritura bideratutako jarduketak, hala jardueri nola inbertsioei dagokienez. Azpimarratu behar dugu **Ekialdeko Distrituan ari den berdintasuneko lantalde bat**, programa honen bidez gartu beharreko arlo honetako lehenetsunak aztertzen eta identifikatzen dituen. Aldi berean, aintzat hartzen ditu herritarren parte hartze prozesuetan hartutako erabakiak.

Programa honetan gertatzen den igoera soilik 6. **kapituluan** islatzen da, zehazki 619.01 Ekialdeko Distrituko Proiektuak partidan.

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

2025erako, kontuan hartuta 2024an erabilitako sistematika eta datuak, guztira **87.200 €** aurreikusten dira **gastu eraldatzaile gisa**. Hona hemen xehetasunak:

- Emakume migratzaileen parte hartzearen sustapena (12.000 €).
- Ahalduntze eskolaren jarraipena (22.000 €).
- Erantzun komunitarioa indarkeria matxisten aurrean (27.000 €).
- Espazio publikoan berdintasuna sustatzea (2.000 €).
- Sistematizazioa (3.500 €).
- Komunikazioa (20.700 €).

Ekialdeko Distrituko **berdintasuneko lantaldeak** garatuko ditu proposamen horiek.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Ekialdeko Distrituan berdintasuneko neurri espezifikoak garatzeko **baliabide ekonomikoak, materialak (Ekialdeko Distrituko emakumeen etxea) eta pertsonalak indartzea.**

5.5.2. GIZA BALIABIDEAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Jarduketa orokorrak gastu politikan sartzen da **Giza Baliabideak** programa. 2025erako **3.595.245 €-ko** aurrekontu zuzkidura du (2024an baino **-% 6,07** gutxiago). Udal aurrekontuetan duen pisua ere apaldu egin da **% 0,79tik % 0,69ra**.

GIZA BALIABIDEAK	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.485.800,00	3.247.348,00	-238.452,00	-%6,84
2. kapitulua	326.937,00	332.887,00	5.950,00	%1,82
6. kapitulua	15.000,00	15.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	3.827.737,00	3.595.235,00	-232.502,00	-%6,07

Aurrekontu programa honetan biltzen dira udal langileen antolamenduari, funtzionamenduari eta gainerako alderdiei lotutako gastuak. Honako zerbitzu hauek hartzen ditu: Giza Baliabideen antolamendua eta kudeaketa, langileen hautaketa, administrazioa eta kudeaketa eta Laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzua.

Beraz, generoa oso aintzat hartzen duen programa da, programa horretan definitzen eta kudeatzen baitira **erakundeetan lan egiten duten pertsonekin lotutako barne politika eta prozedura** guztiak. Gainera, kontuan eduki behar da udal aurrekontuetan pertsonal gastuak **% 35,66** hartzen duela.

Horrexegatik nabarmentzen dugu **genero ikuspegiaren txertaketaren** eta berdintasuna sustatzen duten neurri espezifikoekin **garrantzia**, programaren zeharkako izaeragatik aurrekontu programa guztietan eragiten dutelako.

Programa honen jaitziera **1. kapituluan** zentratzen da, 2 administratzaile postu kendu direlako, eta finkatze prozesuetatik eratorritako kalte-ordainak murriztu direlako, eta bizitza- eta istripu-aseguruak.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honen barruan, 18.150 €-ko kopuruaz hornitu da 226.10 Bestelako enpresek egindako aparteko lanak partida, Donostiako Udaleko emakumeen eta gizonen **berdintasunerako barne Plana** eguneratzeko. Zenbateko hori osorik da gastu eraldatzaile.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Behin onartu ondoren, berdintasunerako **barne Plana inplementatzeko** behar diren **baliabideak eta bitartekoak** gaitzea.
- ✓ Pertsonen kudeaketari buruzko **datuak lortzeko eta aztertzeko sistematikan aurrera egitea**, hainbat esparrutan diagnostikoak ahalbidetzeko: soldata arrakala, kontziliazioa, kontratazioa, sustapena, etab.

5.5.3. HERRITARREN PARTE HARTZEA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Jarduketa orokorrak gastu politikan sartzen da **Herritarren parte hartzea** programa. 2025erako **4.615.991 €-ko** zuzkidura du (2024an 3.571.996 €), eta, beraz, **+% 29,23an** handitu da. Ildo berean, handitu egin da aurrekontuetan duen pisua, % 0,74tik % 0,89ra.

HERRITARREN PARTE HARTZEA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	391.080,00	414.517,00	23.437,00	%5,99
2. kapitulua	247.700,00	280.000,00	32.300,00	%13,04
4. kapitulua	593.074,00	1.228.344,00	635.270,00	%107,11
6. kapitulua	2.048.968,00	2.335.427,00	286.459,00	%13,98
7. kapitulua	291.174,00	357.703,00	66.529,00	%22,85
GUZTIRA	3.571.996,00	4.615.991,00	1.043.995,00	%29,23

1. kapitulari dagokionez, igoera hori soldaten igoera orokorraren eta lanpostuen balorazio sorta baten emaitza da.

2. kapituluaren murrizketari dagokionez, aldaketa txiki batzuk egin dira partida batzuetan (-2.700 €), baina aldaketa garrantzitsuenak 226.99 Bestelako gastuak partida sortan egin dira. Eta beste partida berri bat sortu da, 227.25 Hedabide agentzia. Hona hemen eboluzioaren xehetasunak:

Partida	Gastuen deskribapena	2025	2024	Aldea
226.99	Bestelako gastuak	186.000 €	216.000 €	-30.000 €
226.99.02	Lurralde partaidetza	61.000 €	93.000 €	-32.000 €
226.99.03	Asoziazionismoa sustatzea	55.000 €	35.000 €	20.000 €
226.99.04	Partaidetzarako udal zeharkakotasuna	5.000 €	63.000 €	-58.000 €
226.99.05	Urrezko danborra	5.000 €	0 €	5.000 €
226.99.06	Sektore eta gai partaidetza	10.000 €	10.000 €	0 €
226.99.09	Herri galdeketa	0 €	15.000 €	-15.000 €
226.99.10	Partaidetzako aurrekontuak 2026/2027	50.000 €	0 €	50.000 €
227.25	Hedabide agentzia	65.000 €	0 €	65.000 €
	GUZTIRA	251.000 €	216.000 €	35.000 €

4. kapituluaren barruan, igoera hori Igeldoko Tokiko Entitate txikiari egindako ekarpenaren gehikuntzaren eta Igeldoko Herri Kontseilurako dirulaguntzaren murrizketaren ondorioa da.

Partida	Gastuen deskribapena	2025	2024	Aldea
481.01	Igeldoko Tokiko Entitate txikiari diru-ekarpena	1.142.270 €	500.000 €	642.270 €
481.01	Dirulaguntzak eta hitzarmenak	70.374 €	70.374 €	0 €
481.02	Zubietako Batzorderako transferentzia	5.000 €	5.000 €	0 €
481.04	Igeldoko Herri Kontseilurako dirulaguntza	0 €	7.000 €	-7.000 €
481.05	Osteguna-Irale Auzo Elkartea	3.500 €	3.500 €	0 €
481.08	Parte Zaharrear bizi auzo elkarterako dirulaguntza	7.200 €	7.200 €	0 €
GUZTIRA		1.228.344,00	593.074,00	635.270,00

6. kapituluari dagokionez, ondoko taula honetan daude jasota aldaketak:

Partida	Gastuen deskribapena	2025	2024	Aldea
622.01.03	Behin behineko lokala Igeldo / Local provisional Igeldo	1.142.270 €	500.000 €	642.270 €
622.01.02	Igeldoko Eskola Zaharra berritzea / Renovar la antigua escuela	70.374 €	70.374 €	0 €
622.01.01	Elkarteei lagatako lokalak gaitzea / Habilitación de locales ce	5.000 €	5.000 €	0 €
619.02	Ekialdeko barrutia: Aurrekontu parte-hartzailea/ Presupuest	0 €	7.000 €	-7.000 €
	Aurrekontu parte-hartzailea 2024-2025 / Presupuesto			
619.01	Participativo 2024-2025	3.500 €	3.500 €	0 €
GUZTIRA		1.221.144,00	585.874,00	635.270,00

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2025erako, 10.000 €-tik 17.000 €-ra handitu da gastu eraldatzailea (+% 70). Hauxe izango da zenbateko horren xedea:

- 10.000 € berdintasuna eta parte hartzea uztartzen diren ekimenetan sakontzeko (226.00.06).
- 2.000 € elkarteei prestakuntza eskaintzeko berdintasunaren arloan (226.99.03).
- 5.000 € laguntzen deialdietan, elkarteei prestakuntza eskaintzeko berdintasunaren arloan (481.01).

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun Arloarekin **lankidetz**a ildoari eustea eta indartzea **esparru estrategikoak** inplementatzean (Berdintasunerako V. Plana, Ekialdeko Distritua, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Mugikortasun Plana, Aholkularitza Kontseiluak, etab.).

5.5.4. KUDEAKETA EKONOMIKOA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Finantza eta zerga administrazioa gastu politikan sartzen da **Kudeaketa Ekonomikoa** programa. 2025erako **11.432.114 €-ko** aurrekontu zuzkidura du (2024an baino **+% 124,01** gehiago). Udal aurrekontuetan ere pisu handiagoa du, % 1,05 izatetik % 2,21 izatera igaro baita.

KUDEAKETA EKONOMIKOA	2024	2025	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.798.585,00	3.046.364,00	247.779,00	%8,85
2. kapitulua	1.229.829,00	1.185.405,00	-44.424,00	-%3,61
4. kapitulua	0,00	800.000,00	800.000,00	
6. kapitulua	1.034.756,00	6.400.345,00		%518,54
7. kapitulua	40.000,00	0,00	-40.000,00	-%100,00
GUZTIRA	5.103.170,00	11.432.114,00	6.328.944,00	%124,02

Aurrekontu programa honetan biltzen dira **Kudeaketa Ekonomikoko Departamentuaren funtzionamenduari lotutako gastuak**, eta bertatik honako zerbitzu hauek kudeatzen dira: **Programazioa, azterlanak eta aurrekontuak; Kontratazioa; Ondarea; eta Interbentzioa eta kontabilitatea.**

Programa hau gainerako aurrekontu programetarako zeharkako euskarria da, eta horregatik da hain garrantzitsua programa horretatik neurriak eta irizpideak bultzatzea **barneko prozeduretan** genero ikuspegia gehiago txertatzeko **eta kanpoko mailan eragiteko (kontratazioa eta aurrekontu definizioa).**

Horrexegatik, **oso positiboa da 2025erako** bere aurrekontuetan **berriazko partida bat sartu izana udal aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzen jarraitzeko.** Kanpoko kontratazio horren aurrekontua 24 hilabeterako egin da, beste 12 hilabetez luzatzeko aukerarekin.

Hona hemen programa honen **aurrekontu aldaketa nagusiak**:

- **1. kapitulua:** interbentzio zerbitzuan administrarien herena gehitzea, eta ondare zerbitzuan administrazio orokorreko teknikari lanpostu baten lanaldi erdia.
- **2. kapitulua:** kalte materialen aseguruaren igoeragatik (+39.672 €). Bestalde, 2024an udal erakunde guztien auditorien aurrekontu globala egin zen, baina 2025ean erakunde bakoitzari modu independentean egotzi zaio dagokion zenbatekoa (-106.642 €).
- **4. kapitulua:** 800.000 €-ko aurrekontua esleitu da Hipodromorako ekarpen gisa (90.000 € urrezko koparako).
- **6. kapitulua:** nabarmendu egiten da Bretxan (5.760.034 €) eta Txofre plazan (250.000 €) egin beharreko inbertsiorako berezitateko aurrekontua.
- **7. kapitulua:** desagerrarazi da ADSIS Fundazioarentzako kapital transferentzia (Irisgarritasuna “tailer okupazionalak”) (40.000 €).

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Aurreko atalean aurreratu dugunez, **18.788,28 €-ko gastu eraldatzailea esleitu da** laguntza tekniko bat kontratatzeko eta **genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak egiten jarraitzeko.**

Oso positiboa da aldaketa kualitatibo hori, zerbitzu honek bere gain hartuko baitu lehen berdintasun programak bere gain hartzen zuen aurrekontu zuzkidura hori.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Udal aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzea:** aztertzen diren aurrekontu programen kopurua handitzea, informazioa biltzeko sistemak berrikustea eta hobetzea, berdintasuna sustatzen duten gastuen sailkapen tipologia, diru sarreraren azterketara zabaltzea, etab.
- ✓ Aurrekontu programetan **genero klausulak eta horien tipologia txertatzearen gaineko jarraipena eta balorazioa egiteko sistema espezifiko** bat bultzatzea (aldizkako jarraipen txostena egitea). Horretarako behar diren baliabideak gaitzea.

5.5.5. BARNEKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA BERDINTASUN ARLOAN

2025eko aurrekontuaren barruan, **26.000 €** aurreikusten dira **barneko langileak berdintasun arloan prestatzeko**. Zenbateko hori gastu eraldatzailea da oso-osorik.

5.5.6. LIZITAZIOETAN, DIRULAGUNTZETAN ETA HIZARMENETAN GENERO KLAUSULAK TXERTATZEA

Lizitazioek, dirulaguntzek eta hitzarmenek udal aurrekontuen zati handi bat hartzen dute, eta, horrexegatik, komeni da esparru horretan genero ikuspegitik eta modu kualitatiboan sakontzea. Gainera, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen azken aldaketan nabarmentzen da genero klausulak txertatu behar direla bai 22. artikuluan (Kontratazio Publikoa) bai 23. artikuluan (Dirulaguntzak).

Horrexegatik, beste arrazoi batzuen artean, departamentuei zuzendutako informazioa biltzeko fitxa berria atal bat gehitu da programa bakoitzean klausula horiek eta beren tipologia aintzat hartzen dituzten lizitazioak, hitzarmenak eta dirulaguntzak zehazteko.

Jakin badakigunez praktika horrek aztergai dugun txostenaren azterketa bereizia eskatzen duela, **gomendio orokorrera** joko dugu (**Kudeaketa Ekonomikoaren programan adierazia**), aurrekontu programetan genero klausulak eta horien tipologia txertatzeari buruzko jarraipen eta balorazio espezifiko bat egiteko. Horretarako, aurrekontu zuzkidura espezifiko bat gomendatzen dugu mota horretako azterketetan espezializatutako laguntza teknikoa izateko eta esparru horren egoerari buruzko aldizkako txostenak egiteko.

6. GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA ETA LABURPENA

Atal honetan jasotzen da gastu eraldatzaileak aurrekontu osoan duen ehunekoaren eta zenbatekoaren emaitza globala. Gastu eraldatzaileak lagundu egiten **du genero desberdintasuna bermatzen den oinarritzko egiturak hausten eta desberdintasunak eragiten eta sorrarazten dituzten mekanismoak desegiten.**

Ondoko taulan islatzen da 2017ko ekitalditik datu hauek izan duten eboluzioa (ez dira aurreko txostenetako datuak jaso ez dituztelako alderatzeko moduko datuak eskaintzen):

- Berdintasun programaren aurrekontuaren zenbatekoa.
- Berdintasun programaren aurrekontuaren %-koa udal aurrekontu osoaren gainean.
- Esleitutako gastu eraldatzailea duten aurrekontu programen kopurua.
- Gastu eraldatzailearen urteko zenbatekoa.
- Gastu eraldatzailearen % udal aurrekontuen gainean.

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Berdintasun Programaren Aurrekontua	747.661 €	898.190 €	966.041 €	1.004.374 €	1.087.353 €	1.127.103 €	1.063.697 €	1.078.736 €	1.088.726 €
Berdintasunaren Aurrekontua (%) aurrekontu osoaren gainean	%0,18	%0,20	%0,21	%0,23	%0,27	%0,27	%0,23	%0,22	%0,21
Berdintasun arloko partidak dituzten sail kopurua	13	13	13	14	13	13	20	20	25
Gastu eraldatzailearen zenbatekoa	1.590.538 €	1.839.312 €	2.002.711 €	2.220.903 €	2.453.343 €	2.808.568 €	3.897.202 €	3.882.397 €	4.190.644 €
Gastu eraldatzailea (%) aurrekontu osoaren gainean	%0,38	%0,41	%0,43	%0,49	%0,61	%0,66	%0,79	%0,81	%0,81


2025eko emaitzei dagokienez, hauek nabarmendu behar ditugu:

- **Zenbateko absolutuetan handitu egin da gastu eraldatzailea**, baina udal aurrekontuetan **% 0,81eko pisuari eusten dio.**
- **Berdintasun programaren zuzkidura handitu egin da**, baina aurrekontu orokorretan duen **pisua ehuneko 0,01ean apaldu da.**
- Oso positiboa da beren aurrekontu zuzkiduran **gastu eraldatzaileako** zenbateko espezifiko bat **esleitu duten aurrekontu programa gehiago izatea.**


Prozesuan aurrera egiten jarraitzeko gomendioa egiten dugu berdintasun arloko partida espezifikoak dauzkaten aurrekontu programen kopurua handitzeko eta analisia programa berrietara zabaltzeko. Erreferentziatzat harturik emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko gaur egungo Legean zehaztutako helburua izan behar duela *“gutxienez aurrekontuaren % 1 ematea emakumeen eta gizonen berdintasun politikak garatzeko”* (% 1,5era handitzea 2030erako).

Jarraian irudikatzen dira **Berdintasun programaren eta Gastu eraldatzailea programaren aurrekontu zuzkiduraren eboluzioa azaltzen duten grafikoak.**

BERDINTASUN PROGRAMAREN AURREKONTUAREN EBOLUZIOA



GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA



Azkenik, **2025. urterako aurrekontuz hornituriko gastu eraldatzailearen** laburpena aurkezten da ondoko taula honetan:

GASTO TRANSFORMADOR PRESUPUESTOS MUNICIPALES 2025						
Unidad	Cap. 1	Cap. 2	Cap. 4	Cap. 6	TOTAL	%/Ppto. Total
Igualdad	482.894,00	327.607,00	228.225,00	50.000,00	1.088.726,00	0,21%
Guardia Municipal	137.154,00			75.000,00	212.154,00	
Movilidad Urbana		16.000,00			16.000,00	
Urbanismo				30.000,00	30.000,00	
Cooperación			1.172.089,00		1.172.089,00	
Acción Social	326.661,00	20.200,00			346.861,00	
Salud pública y bienestar animal		6.000,00			6.000,00	
Escuela de música y danza		11.600,00			11.600,00	
Programas educativos		63.536,00	6.833,00		70.369,00	
Derechos Humanos		17.000,00			17.000,00	
Diversidad cultural		8.985,55			8.985,55	
Donostia Kultura		64.500,00			64.500,00	
Euskera		10.000,00			10.000,00	
Juventud		40.000,00		75.000,00	115.000,00	
Donostia Kirola		15.000,00	145.000,00		160.000,00	
Donostia Turismo		17.500,00			17.500,00	
Fomento, S.A.		56.080,00	55.475,00		111.555,00	
Dbus		41.000,00			41.000,00	
Mantenimiento y Servicios urbanos: Dirección y Admón.		25.000,00			25.000,00	
Proyectos y Obras				500.000,00	500.000,00	
Distrito Este				86.366,25	86.366,25	
Participación ciudadana		12.000,00	5.000,00		17.000,00	
Gestión económica		18.788,28			18.788,28	
Recursos Humanos		18.150,00			18.150,00	
Formación en igualdad personal municipal	26.000,00				26.000,00	
TOTAL	972.709,00	788.946,83	1.612.622,00	816.366,25	4.190.644,08	0,81%